

ARGIA

FINANTZA ETIKOAK BIZITZA DUINA ELIKATZEKO LEHENGAI




**APUSTUA: JOKO ZIKINAK
KIROLA BALDINTZATZEN
DUENEAN**

**ARKAITZ LEON: LAKABE
HERRI KOMUNITARIOAN
ARGITALETXEA MARTXAN**

**MERCEDES ÁLVAREZ:
"ZINEMA MILITANTEA BETI
IZANGO DA BEHARREZKOA"**

Datorren astean



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Asier Blas
- 20 Jose Ignazio Ansorena
- 21 Iñaki Odriozola
- Oihana Etxebarrieta



Donostian hizlari izan den Petra Bauerrekin hitz egin dugu; *besteak beste, feminismoaren eta zinearen arteko harremanaz.* (ARGAZKIA: TABAKALERA)

- 38 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGi-KONTRA: MERCEDES ÁLVAREZ
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO MUNTAKETA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 14 | Arkaitz Leon: "Beste mundu bat egin litekeela aldarrikatzen duten liburuak plazaratu nahi ditugu" / Reyes Ilintxeta
- 22 | Kirol apustuak: Azpijokoa arbitro / Jon Torner Zabala
- 28 | Eta zure aurrezkiek, zer sustatzen dute? / Lander Arretxea Bereziartua
- 32 | Berreskuratutako fabrikak Italian: Zero zuzendari, zero kutsadura, zero esplotazio / Martin Mendizabal Garai
- 34 | Aroztegia proiektua: Nola eutsi euskaldun, 684 biztanle berri etorriko balira / Onintza Irureta Azkune
- 42 | Petra Bauerrekin solasean: Bultza dezake irudiak politika? / Danele Sarriugarte Mochales
- 45 | Etxepare Institutuko zuzendarien gastuak / Gorka Bereziartua Mitxelena
- 46 | Hollywooddek ez ditu emakume kirolariak atsegin / Gaizka Izagirre

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko parteidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Ane Urkola, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Iker Oñate, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Isabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Llorente, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473 163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
HARPIDETZA:
Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

“Gastu militarra behar sozialetarako”

1986an Euskal Herriak, Kataluniak eta Kanariar Irlek ezetz esan zioten NATOren parte izateari; militarismo eta inperialismoaren aurkako jarrerak gurean zuten indarra agerian utziz. 30 urteren ostean, ordea, militarismoak gora egin du. Nafarroako Bardeetako natur gunean probatutako NATOko bonbek milaka hildako eta zauritu eragin dituzte Jugoslavian, Iraken, Afganistanen edo Libian. Eta heriotzak ez dio negozio izateari utzi. Horren adibide dira Espainiako Estatuak gastu militarrean 2016an xahutuko dituen 24.000 milioi euroak. 1986ko “NATOr ezi!” aldarria Bilboko Gobernu Militarren aurrera eraman du berriz ere Kakitzat talde antimilitaristak, militarrei oparitzen zaien dirutza herritarren beharretara bideratzeko eskatuz.

Argazkia: Iñigo Azkona




“Japoniako agintariek edozer egingo dute Fukushima-ren arriskuei buruzko egia ezkutatzeko, Olinpiar Jokoak ongi joan daitezten”. Pierre Fetet

argia.eus/multimedia



Beltzean mintzo: Amerikako hizkuntzen arnasaz

Zer ari da gertatzen Ameriketako hizkuntza handiekin? Nola ikusten gaituzte euskaldunok gainerako hizkuntza gutxituetako kideek?... Gara-bideren dokumentala.



Lodifobia

Gorputz lodiak izateagatik baztertuak eta zigortuak diren emakumei buruzko lana, hiru emakumeren testigantzetan oinarrituta.



Ezker-eskuin: Juan Mari Aburto, Bilboko alkatea; Joseba Asiron, Iruñeko alkatea; Mixel Etxebeste, Mauleko auzapeza; Eneko Goia, Donostiako alkatea; eta Gorka Urtaran, Gasteizko alkatea.

JOSEBA DOMINGO / GOIENA

Hiriak, euskararentzako gako

Monika Belastegi / Goiena
@goiena

Euskal Herriko bost hiriburutako alkateak bildu ditu Mondragon Unibertsitateak. Iruñea, Maule, Gasteiz, Bilbo eta Donostiako alkateak bat etorri dira esaten, ezagutzak aurrera egin badu ere, erabilerak ezetz. Mahai-inguru historikoa izan da, lehenengo aldiz euskal hiztunak baitira Hego Euskal Herriko lau hiriburutako eta Iparraldeko bateko alkateak.

Euskara normal erabiltzea hiriburuetan, horra alkateek mahai-inguruan plazaratu duten mezua. Juan Mari Aburtoren hitzetan, “hiriak garapenerako leku egokiak” izango dira, eta baita “euskararen arloa aztertze” ere. Bilbon, 80.000 euskal hiztun daudela esan zuen: “Bide luzea daukagu, baina ez gaude hasieran”. “Erronka nagusia da euskararen ezagutzatik erabilpena ibiltzea”.

Joseba Asironek begirada atzera bota zuen: “Eskuina agintean egon den bitartean, euskararendako trabak ipini ditu”. 2011n,

euskaldun aktibo eta pasiboen kopuruak bikoiztu egin direla azaldu zuen, “baina hori erabilpena eramanen duzunean gauzak asko aldatzen dira”. “Euskarari prestigioa eman” behar zaiola esan zuen.

Mixel Etxebestek Frantziaren zentralismoa eta frantsesaren nagusitasuna nabarmendu zuen, Konstituzioak hala ezartzen baitu. Halere, “azken hamar urteotan berreskuratzen ari da Iparraldean euskara, bai gizartean eta bai hautetsiek ere”, eta haurren %10ek D ereduan ikasten dutela gaineratu zuen.

Eneko Goiak “harrotasunez” errepikatu zuen Donostia dela hiriburu euskaldunena. “Denok erronka parekoa dugu: erabilera”. Garbi du “ingurune urbanoan duela euskarak etorkizuna, hiriok izugarritzko papera dutela”.

Gorka Urtaranentzat, “hiriak estatuak baino boteretsuagoak izango dira XXI. mendean”, eta haien rol estrategikoa nabarmendu zuen: “Euskararen etorkizuna definituko da hirietan”. Gasteizen, euskarak aurrera egin du, baina erabilera ez dator bat ezagutzarekin.


“EAn euskararekin konpromisoa duenak ahalegina egin behar du alderdi osoa inplikatzeko”

MARKEL OLANO, GIPUZKOAKO AHALDUN NAGUSIA

Euskara normalizatzeko bidean, Olanoren hitzetan “anbizioz jokatzeko erabakia hartu behar dugu”. Etxe barruan, “EAn euskarari buruz ikuspegi aurreratuagoa edo konpromiso berezia duen kolektiboak ahalegina egin behar du alderdi osoa inplikatzeko”. Euskalgintzaren garrantzia ere nabarmendu du: “Euskararen normalizazioari lehentasuna emango dion gune autonomo bat behar dugu. Akuilu lana egin behar du, presioa zentzu onean”. **BERRIA (2016-03-13)**



PALESTINAKO AGINTEAREN GIDA OKUPAZIOA MANTENTZEKO



ITZULPENA
ARGIA

VISUALIZING PALESTINE

WWW.VISUALIZINGPALESTINE.ORG, 2016 | URTARRILA
PARTEKATZEKO ETA BANATZEKO LIBRE ZARA.

@visualizingpal
fb.com/visualizingpalestine

CC BY-NC-SA



TIMES

Europaren joko zikina, bost puntutan

Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

Errefuxiatuak gainetik kentzeko denak balio du. Etiketik eta legetik urrun dagoen politika darama 2012an Bakearen Nobela jaso zuen Europar Batasunak.

Ostikoa Turkiara. Grezian pilatuta dauden errefuxiatuak, Europar Batasunaren ustez babesa behar ez dutenak –errefuxiatu ekonomikoak direlako edo Europaren arabera herrialde nahikoa gatazkatsuak ez direlako– Turkiara kaleratuko dituzte. Berdin dio horretarako Erdoganen Gobernuari 6.000 milioi euro ordaindu behar izatea, Turkiak giza eskubideak sistematikoki urratzea, kurduen aurkako gatazka militarra bizi-bizi egotea, herrialde hartan errefuxiatuentzako gutxieneko baldintzak ziurtatuta ez izatea edota Turkiak Siria-ko gerran parte-hartze zuzena edukitzea; errefuxiatuak kanpora bidali baditzaie, beste alde batera begiratuko du Europar Batasunak. Trukean, Turkian dauden errefuxiatu siriarrak hartuko omen ditu EBk, baina akordioan argi utzi du Europako herrialdeek ez dutela betebeharririk errefuxiatuok birkokatzerako konprometitzeko, beraz ez dirudi oso fidagarria hala egingo dutenik. Bide batez, mezua argia da Europara ihesean datozenentzat: ez gurutatzatu itsasoa, bueltan bidaliko zaituztegu Turkiara.

Ikuskizun danteskoa Grezian. Grezia-ko Idomeni kanpalekuan pilatuta bizi diren 14.000 lagunentzako ere garbia da mezua:

Turkiara bidaliko zaituztegu, edo Grezian mantenduko, baina ez zarete Europar baneratu. Mazedoniak muga itxi ostean eta negu betean, okerrera egingo du Grezian dauden errefuxiatuen egoerak. Lokatz gainean bustita dauden kanpin-dendetan egiten dute lo eta jasangaitzak dira baldintzak.

Lehenengo eta bigarren mailakoak. Aipatu moduan, siriarrak edo irakiarak ez direnak ez dituzte errefuxiatutzat hartzen, eta siriarrak edo irakiarren egoera gogorra bada, are gogorragoa da beste herrialde batzuetatik ihesean datozen migratzaileentzat. Ateak itxita dituzte zuzenean. Greziara iristen direnen %40 inguru afganiarrak dira, talibanen eraso etengabeen biktimak euren lurraldean, baina horiek ez dute babesik behar, Europaren aburuz.

Legea, zer da hori? Asiloa behar dutenei babesa emateko betebeharra ez da konplizitzen ari Europa eta Genevako hitzarmenak dioen arren asilo eskaerei indibidualki –eta ez kolektiboki– erantzun behar zaiela edo ezin direla asilo eskatzaileak jatorriko herrialdearen arabera diskriminatu, kontrakoa egiten ari da Europar Batasuna.

Iruzurra. Europako estatuen artean errefuxiatuak birkokatzeke plana hutsaren hurrengoa izaten ari da, lotsagarria da herrialdeek hartu dituzten errefuxiatuen kopurua eta gobernuburuen konpromisoak haizeak eraman ditu. Alderantziz, gero eta kontrol eta muga gehiago jarri dituzte Europan, gotorlekua ondo babesteko.

EKONOMIAREN TALAIAN

Euskal Herria, lan erreforma beraren gatibu



Juan Mari Arregi

Frantziako Gobernuaren ezkerreko sektoreak, sindikatuak eta ikasle mugimenduek –Euskal Herrikoek barne– mobilizazioak hasi dituzte, Hollanderen exekutiboari erronka botatzeko lan erreforma berriaren proiektuarekin atzera egin edo gutxienez funtsean alda dezan. Martxoaren 31rako iragarritako dagoen greba eta mobilizazio egun orokorraren atariko baina ez da izan. Lan erreforma onartzen bada, Ipar zein Hego Euskal Herriko herritarrak lan prekarietate eta kaleratze merkearen gatibu izango dira neurri berean, Frantziako Gobernuaren asmoa baita Espainiako Estatuaren indarrean dagoen legea kopiatzea.

Formalki asteen 35 lanorduko lege ukiezina aldatzen ez den arren, proiektu frantziarrak atzerabiderik gabeko ekintzen bidez leherraraziko du. Arrazoi ekonomikoengatik egindako kaleratzeek bidea ematen die –lau hiru hilekotan galerak edo fakturazio gainbehera edukitzea nahikoa litzateke– eta kaleratzeengatik eman beharreko indemnitazioen mugak jaisten ditu: 20 urteko antzinatasuna dutenentzat 15 hilabeteko soldata, orain duten 24 eta 27 hileko soldataren orde. Patronala pozez zorutzen dago eta ez du nahi langileen oposizioak “merkealdia” ekartzerik.

Bai eskuineko gobernuek –Espainiako Estatu kasu– bai ezker sozialdemokrazia kapitalismoaren interresera daude. Euskal Herria, estatu eta gobernu horien gatibu da, baita euren erreformena ere, eta ondo egingo luke bere bidea bilatzen hasiko balitz eredu sozio-ekonomiko eta laboral alternatibo baterantz, kapitalismoa gainditu eta herritarren zerbitzura egoteko, batez ere ahulenen eta behar gehien dutenen zerbitzura.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Angel Berruetaren omenaldian, Nafarroako erakundeak lehen aldiz

IRUÑEA. Espainiako polizia batek eta bere semeak Angel Berrueta okina hil zuten 2004an, M11ko atentatuetatik bi egunera bere dendan *ETA* ez zioen kartela jartzeari uko egin ondoren. 12 urte eta gero, Nafarroako Gobernuak ordezkariak lehen aldiz izan dira haren aldeko omenaldian. Uxue Barkos Nafarroako lehendakariak "biktima guztien aitortza" eta "berriz errepikatu behar ez denaren memoria mantentzeko" lanaz hitz egin zuen. Joseba Asiron Iruñeko alkatearen esanetan, horrelako omenaldiek gogora ekartzen dute "zeinen garai biolentotik" gatozen. Biktima guztientzako egia, justizia eta erreparazioa eskatu zuen.

Hiru urterako finantzazioa izozteak "ezinegona" sortu du euskal hedabideetan

Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Komunikabide euskaldunak batzen dituen Hekimen Elkartearen izenean, agerraldia egin zuen martxoaren 9an Alberto Barandiaranek Eusko Legebiltzarrean.

Lan baldintza ahulak

Euskal hedabideetako lan baldintzak "nabarmen apalagoak" dira erdarazkoen aldean. "Horrek ezegonkortasuna eta ziurtasunik eza sortzen du, eta ez du errazten langileei bizitzeko eta profesionalki garatzeko aukera".

Iristen diren hedabideak

Audientzien gaiak hizkuntza politika eraginkorrekin du lotura: "HPSk egindako inkestaren arabera, euskaldunek euskarazko prentsa aukeratzen dute hizkuntz gaitasunak gora egin ahala".

Adostasunik ez

2019ra arte egungo aurrekontu bera aurreikusi du Jaurlearitzak euskarazko hedabideentzat. "Epe ertainerako planteamendu honek ez du egonkortasun sentsaziorik sortu sektorean, kontrakoa baizik: ezinegona dago".

EPAITEGIAK



urteko zigorra eskatu du fiskalak Alfredo De Miguel EAJko buru ohientzat. Legez kanpoko elkarte bat eratu eta komisioak kobratzea, adjudikazio publikoak modu irregularrean eskuratzea, egin gabeko lanengatik dirua lortzea... egotzi diote.

26
auzipetu daude, ia denak jeltzaleak.



EPPK-RI BABESA

Lege-baliabideak baliatuz etxeratzeko hautua babestu dute ehunka preso eta iheslari ohik. Amnistiaaren norabidean, euskal preso eta iheslariak etxera manifestua aurkeztu dute Usurbilen, eta manifestaziora deitu dute apirilaren 17rako.



TREBIÑU BERRIZ KONGRESURA

Trebiñuko Udalak berriro luzatuko du Arabarekin bat egiteko eskaera Espainiako Diputatuen Kongresuan, 2014an egin bezala. Eskaerak ez zuen aurrera egin orduan, baina oraingoa esperantza dute, Kongresuko gehiengoak aldatu egin direlako.



GOSE GREBAN

Gose greba mugagabea abiatu zuten 13 preso politiko sahararrek martxoaren 1ean. Militantzia politikoagatik eta Gdeim Izik-eko kanpaldi baketsuan parte hartzeagatik 20 urtetik bizi osora doazen espetxe zigorrak ezarri zizkien 2013an Marokoko epaitegi militar batek.

Zubietako errauskailuak ere kontsulta behar du



Xabier Letona

@xletona

NAFARROAKO GOBERNUAK onartu berri du hondakinen kudeaketarako plana, hiru oinarri nagusik gidatuta: prebentzioa, berrerabiltzea eta birziklatzea. Orbanik gabeko plana ez da, azkenean errefusaren %15 zementu lantegian erraustea proposatzen baita. Hala ere, norabide egokian da, 2025erako hondakinen %10 gutxitzea aurreikusten baitu, organikoaren %75 birziklatzea eta ontzien %90. Paperetik errealtateratzen dagoen ikusi behar orain, eta egiazko jauzia egiteko kontzeptu klabeetan nola egiten den aurrera, esaterako birziklatzearen derrigortasunean.

Gaur egun, alabaina, ez da txantxetako bide hori guztia errauskailurik gabe egin nahi izatea. Kontrastea berehalak dator: Gipuzkoak Zubietako errausketa proiektua berpiztu du, lurralde hau hondakinen kudeaketan Nafarroa baino askoz aurreratuagoa denean. Markel Olanoren gobernuarentzat ezinbestekoa da errauskailu bat egitea eta Uxue Barkosen gobernuak erabaki du ez dela errauskailurik behar. Galdera berez dator: zergatik batean bai eta bestean ez?

Berrirori berotuz doa hondakinen gaia Gipuzkoan, inoiz guztiz hostu ez bada ere. Hori adierazten dute errausketaren aurkako Zubietako martxak edo Andoingo joan den larunbateko manifestazioak.

Zero eremutik urrutira ere iristen ari dira mugimenduaren errepikak. Gipuzkoan gaikako bilketan txapelduna den Debagoienan, Bergarako Epeleko Hondakin Ez Arriskutsuen Zabortegia hondakin nahasien zabortegi bihurtu nahi du Diputazioak. Debagoiena Eredu herritarren plataforma sortu da asmoari aurre egiteko eta aieratzen duten galdera ez da txantxetako: Debagoienan azken bost urteetan %80ko gaikako bilketa lortu bada, beste eskualdeetan zergatik ezin da?

Ez baita mirari bat han egindakoa, ez diru kostu handikoa, ez gaitza bideratzeko. Udalen borondate politikoa besterik ez da behar izan. Herri batzuetan atez ate, besteetan edukiontziz, klabe garrantzitsuena honakoa da: ez dago hondakinak nahasian biltzen dituen edukiontzirik. Bide honetan giltzarri izan zen atez atekoak egindako bidea eta baita Arrasaten EH Bilduren eta EAJ-ren artean txip bidezko edukiontzien inguruan izandako akordioa ere.

Adi, baina, "derrigorrarekin", hitz mardarikatua baita askatasun liberal eta sakratuen gizarte honetan: ez derrigortu hondakinak gaika biltzera, baina bai guztiz birziklagarriak diren hondakinak erretzera.

Jeltzaleen artean bada Zubietako errauskailua auzitan jartzen duenik: Zabalgarrin erre badaiteke, zertarako negozioa Kantabriara eraman?


ERRAUSKETAREN APOLOGIAN oinarrituta bada ere, jeltzaleen artean bada Zubietako errauskailua auzitan jartzen duenik: Zabalgarrin erre badaiteke, zertarako negozioa Kantabriara eraman? Luis Alberto Aranbarri *Amatiñok* horixe iradokitzen du bere blogeko *Gipuzkoaren gezurra* artikuluan: "Bizkaia eta Gipuzkoa lurralde berekoak balira, Gipuzkoak egingo al luke erraustegi berririk Zubietan? Denok ere normal samarrak bagina, elkarrekin osatzen dugun bi milioitik beherako biztanlegoak ez ote luke aski izango erraustegi bakarraz? Erotu al gara?"

Gipuzkoan azken hilabeteetan bilketa sistemaz erreferendum ugari egin dira. Denetan irabazi du txip bidezko edukiontzien sistemak. Pista bat bada, zalantza barik. Baina ba al dakigu zer pentsatzen duten errauskailu proiektuaz? Bilketaz galdetu eta tratamenduaz ez? Ez al litzateke logikoagoa eta demokratikoagoa errauskailuaz ere galdetzea?

Lezoko alkate jeltzalearen dimisioa izan da egoeraren azken neurgailua. Aurreko udalak ezarritako (EH Bildu) Lezonen atez ateko eredua egon da indarrean oraintsu arte; oraingo Udalaren (EAJ) eta EH Bilduren arteko akordioaren ondorioz, bio-hondakinak eta erre-fusa atez ate bilduko dira eta papera eta plastikoa edukiontzien bidez. EAJ-ren GBBk ez du akordioa ontzat eman eta EAJko Lezoko alkateak dimisioa eman du. Beraz, ez kontsultarik? Ez akordiorik?

Botoei baino hondakinei begiratzen dienaren begitik, eta bere xumean, Gipuzkoako Zero Zabor mugimenduak eredugarri izaten jarraitzen du. Etxebetzeenaz gain, ba ote da egun Euskal Herri osoan herri mugimendu eraginkorrik? ■

Galesko Gobernuak 53/88 ZIRKULARRA
 aplikatzen du, eta YNYS MÔN herrian
 ez da baimenik ematen 50 etxebizitza egiteko,
 Galeserarengan ukan zezaketean eraginagatik



Nafarroako Euskal Eremu beteaz
 228 etxebizitza eraiki nahi dituzte
 promotoreak eta diputatu gehienak
 pozez txoratzen daude 684/341 zirku-
 larraz:

684 biztanle berri*
 341 lekartzarren gainean **

* HIZKUNTZ-PROFIL jakinik gabe
 * %75 euskalduna



hainbateko
 ARROZTEGIA

'Merci Patron' filmarekin obreroak behingoagatik nagusia izorratu du



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

François Hollanderekin sozialdemokrazia ari denean langileei ehun urteotako eskubide murrizketarik handiena antolatzen, astekari txiki batek ekoiztutako film dokumental xumeak inarrosi du klase borroka Frantziako estatuan. Klase borroka, bai, pobreak aberatsen kontra, ez gutxiago, baina oraingoan txiroak menderatu du aberatsen arteko aberatsena.



François Ruffin kazetaria gerta ote dai-teke Frantziako Pablo Iglesias berria? ARGIA baino handiagoa ez den *Fakir* aldizkarian oinarrituta, *Merci Patron!* filmarekin aspaldiko jipoirik handiena eman dio denen jabe egina den oligarkiari. Noiz eta François Hollande eta Manuel Vallsen eskutik sozialdemokrazia prestatzen ari denean langileen eskubideen ehun urteko atzerakadarik handiena.

Baionako *L'Autre Cinema* salan dago ikusgai martxoaren 21 arte *Merci Patron!*. Ez da segurua gaztelaniaz ikusi ahalko dugun. Euskaraz ziur ezetz. Belgikako mugako Frantzia horretan bertan girotutako *Bienvenue chez les ch'tis* filmak ekarri bazuen *Bienvenidos al norte* eta *Chomin del Regatoz* girotutako sekuelatzat *Ocho apellidos vascos*: Madril eta Bilboko oligarkiek lortuko ote dute euskaldun espainoloi ezkutatzea?

Ikusi. Serge eta Jocelyne Klur senar-emazteak miserian bizi dira. Munduko luxu konpainiarik sendoena den LVMH –Louis Vuitton, Dior...– taldearen Ecce enpresan ari ziren *Kenzo* markako janzkiak josten, harik eta langabeziara bota zituzten arte: ugazabak produkzioa Poloniara deslokalizatu zuen.

Lau urte daramate lanik gabe. Agortu zaie langabezia saria. Hilabetea 400 euroekin pasatu behar. Negua luze egiten da kalefakziorik gabe. Lanik bilatzen duzue? Bai, gasolina ordaintzeko bost edo hamar euro dauzkaten badoaz batera eta bestera ate joka. "Egunean hiru

euroekin bizitzea ez dirudi erraza, nola lortzen duzue?". "Batuetan jan gabe. Eguberri ospatu dugu gazta tarta batekin". Erruki bila ez dabilta Klurtarrak, baina pobre izatea ez dute ezkutatzen.

CGTko militante baten bitartez aurkitu ditu François Ruffinek. Aspalditik ari da Frantziako gizonik aberatsena, Bernard Arnault, LVMHren jabea ikertu eta pertsegitzen. Ironiaz baino sarkasmoz betetako hizkera darabil Ruffinek: aberatsen eta langileen arteko bakea nahi duela, klaseen arteko elkarriketa, ezin duela sinetsi Arnault esaten dutena bezain bihozgabea denik...

Arnaulti buruzko dokumentala grabatzen ari direla, ezustekoa: miserian egoteaz gain etxetik alde egin beharra egokitu zaie Klurtarrei. Segururik gabe daukaten kotxearekin 4x4 handi bat jo dute eta auzitegiak ezarri die 25.000 euroko kalteordaina. Etxea ere galdu?

Ez zaio buruan sartzen Sergeri. Bizi osoko lanaren fruitua den etxe hotz xumea, beren eskuz zaharberritua, eguneroko otorduetan zer jana ematen dien baratzea... Etxea galdu baino lehen emango dio su eta ez da izango inoren.

"Ez dago –dio Frederic Lordon ekonomialari ezkertiarak– Klur familiarena baino historia lokalagorik, baina ezta globalagorik ere. Klurtarrek laburbiltzen baitute ia osorik sistema". Gauza da hortik abiatuta Ruffinek eta *Fakir*reko ekipoak ez dutela jo neoliberalismoak langileak nola tratatzen dituen azaltzera pedagogiaren eta analisisen ildotik, beste

batzuek egin duten gisa. *Merci patron!* nekez klasifikatzen da. Frederic Lordonek dio dela "*un film d'action directe*". *La Vanguardian* Rafael Pochekek deitu dio "*una película gamberra*".

Ekintza zuzenaz zerbait badaki Ruffinek. Arnaulten gezurrak salatzeke, artikuluak eta liburuak argitaratzeaz gain, hark langabezia utzitako langile askorekin batera LVMHren akziodun bilakatu eta 2008an lehertu egin zioten akziodunen urteroko batzar lasaia. *Merci Patron!* filma ere salaketatik harago doa: Klur familiaren kinka larriari erantzuteko, xantaia egingo diote Frantziako gizonik dirudunenari. Xantaia, argi eta garbi, besaulkitik zeure begiekin ikusiko duzuna. Baina a zer nolako mende-kua!

Batez ere, ez esan *Fakir*koiei

Bernard Arnaulten fortunaren hasiera lotuta dago Boussac herriaren eta oro har Picardie, Pas de Calais eta Nord departamenduetako milaka familiaren malurrearekin. 1984an erosi zituen horko oihal lantegiak, 13.000-15.000 langile, %20 kaleratu eta gainerakoak salbatzea agindu... ondoren dena deslokalizatzeke.

Konpainia osotik *Dior* zen erostea interesatzen zitzaion bakarra, gainerako industria alferrik zuen eta likidatu egin zuen. Baina 30 urte geroago ia ez da inor oroitzen hartaz, Boussacen bertan pre-kariotasun osora kondenatutako gazteek ez dakite ezer sarraskiaz.



'Merci Patron!' filmetik ateratako fotograman, ezkerrean telefonoz hizketan François Ruf n kazetaria, aurrean dauzkala Jocelyne eta Serge Klur senar-emazte langabetuak. Dokumentalak bildu ditu hirurok, 'Fakir' aldizkariarekin eta oihalgintzatik kanporatutako langile militanteekin elkarlanean, Bernard Arnault oligarkari egindako xantaia eta iseka. Film lotsagabeak erakusten du Louis Vuitton, Moët-Chandon, Kenzo eta beste hainbat luxuzko konpainiaren jabe den Arnaulten aberastasunen jatorri iluna eta obreroekin darabilen jokabide errukigabea.

Urteotan Arnaultek lortu du inork inon ez aipatzea Boussac Saint Freres usinen hondamendia, langabezia, kaleratzeak, suizidioak, miseria... edo aipatzekotan, eufemismoz itxuraldatuta. Kontakizun propioa *-relato* famatua-sorrarazi du, kazetari erosiek idatzitako liburu, elkarrizketa eta erreportajeekin.

Arnaultek lortua zuenean "jatorrizko bekatua" estaltzea. Ruffinek aurkitu du krimenaren oroimena zaindu duen azken lekukoa, Catherine Thierry moja langile sindikalista, urte haietan gorde-tako prentsako orrietan dago Saint Freres nola arpilatu zuten, hura salbatzeko subentzioak gezurretan baliatu, enpleguak mantentzeko promesak ahaztu...

Ez joan *Merci Patron!* 30 urteotako neoliberalismoaren historia ikusita tris-tatzera: oligarketan lotsagabeenari eskarmentua ematea da hemen kontua.

Catherine lekaide gorria haserretu egiten da oraindik Arnaultekin. Alta, Ruffin-Davidek Klur senar-emazteekin batera irri egin nahi du Goliaten kontura, barregarri utzi, izorratu... eta 45.000 euro kendu.

Gutuna idatziko diote nagusiari: estu eta larri gaude, astakeria bat egiteko zorian, baina zuk lagundu diezagukezu 45.000rekin eta Sergeri zure konpainia ugarietako batean lanpostua emanaz. Zuretzako keinu txiki bat, guretzako hil ala biziko aldaketa. Bestela, prentsara jo beharko dugu gure miseriak azaltzera, *Le Monde, Mediapart, Fakir...*

Sinesteak lan duen arren, amarruak funtzionatu egingo du. Oligarkak kezkatuta egon behar du Klurtarren etxeraino bidali duenerako negoziatzera bere segurtasun pribatuko buru bat, Frantziako polizia sekretuko komisario izandakoa. Gero esku hartuko du François Hollan-

deren aholkularia eta politiko sozialista ezagun batek. Panikoa jauregian, antza. *Padrone* prest dago obrero baldarrari 45.000 euro dirutan emateko eta Carrefourren enplegua... edozer, prentsara ez jotzekotan. Azkenean, langileon algararen betea izan dadin, bietan galtzaile aterako da sekula ezertan galdu ez duen urrezko Arnault: pagatu eta gainera mundu guztiaren aurrean irrigarri geratu.

Hona itxaropenezko film bat langileen zanpatze orokorraren garaiotan, menturaz ezkerreko jendeaz gain txiro zanpatu batzuek ere ikusiko dutena. Zalapartaren gakoa non dagoen komisario-ohiak azaldu du, Klurtarrei esan die-nean kontuz ibili behar dutela batik bat *Fakir*reko jendearekin. Aldizkari txiki horrekin? Zergatik? *"C'est les minorités agissantes qui font tout"*. Gutxiengo ekin-tzaileak dira arriskutsuenak. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Arkaitz Leon Muela, idazlea

«Beste mundu bat egin litekeela aldarrikatzen duten liburuak plazaratu nahi ditugu»

Arkaitz Leon Muela Nafarroako Lakabe herri komunitarioan bizi da. Baratzeaz eta fruta-arbolez arduratzen da, eta ogia egitea ere egokitzen zaio. Fantasiez eta abenturez idaztea du gogoko, baina gaurko gizarte globalizatuaren ajeak bistaratzea ahaztu gabe.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Nola etorri zinen Bilbotik Lakabera?

Amarekin etorri nintzen 10 urte nituela. Amak erabaki zuenean mendiko bizimodua nahi zuela, Leongo Bierzo eskualdeko Matavenero ekoaldeara joan ginen. Han bi urte egin ondoren, Nafarroan, Arizkuren herrian antzeko proiektu bat zegoela jakin genuen. Urtebete baino ez ginen izan han, haur gehiago ez zegoelako. Lakabe jada ezagutzen zuen amak, bere lehengusu bat eta Bilboko auzo lagun bat hemen izanak zirelako, beraz hona etorri eta bertan gelditu ginen. Amak Bilbotik bagindoazela esan zidanean oso berri txarra izan zen, han uzten nituelako lagunak eta dena, baina berehala ohitu eta oso pozik nengoen hemen, aske eta gustura.

Hemengo bizimodua niretzat oso pozgarria da. Orain ez dut imajinatzen nire burua hirian bizitzen. Ikastera atera nintzenean, ez nuen batxilergoa hirian egin nahi eta herriren batean zer ikasia bilatu nuen. Elizondora joan eta bi urtez mendi bizikleta, zaldi gidaritza eta aisialdi jarduerekin lotutako ikasketak egin nituen. Mendian eta proiektu komunitario batean bizitzea da nire ari-man dagoena.

Haur garaian eskolara Agoitzera joaten zintzen?

Nire garaian bai. 2002an amaitu nuen han eta pare bat urte geroago Garraldara aldatzea erabaki genuen Itoizko urtegiagatik. Ez dugu haurrak Agoitzen egotea nahi, arriskutsua delako. Sei urtera arte umeak hemen egoten dira, hemengo eskola txiki eta alternatiboan, eta gero Garraldara eramaten ditugu. Geuk eraman behar ditugu, eta jantokirako laguntzarik ere ez dugu jasotzen, teoriar hori ez delako guri dagokigun ikastetxea. Nahiz eta Agoitz eta Garralda distantzia berera egon, hemendik ordu laurdenera, Agoitz da legez dagokiguna.

Zenbat jende bizi zarete orain Lakaben?

40 bat lagun. Horiatarik 13 haurrak dira. Ni txikia nintzenean haurrak gehiago ginen helduak baino. Gero, oso haur gutxiko bolada izan zen eta orain berriro kopurua handitzen ari da. Lakabeko hirugarren belaunaldikoak dira.

16 urterekin atera zinen hemendik, baina naturarekin bat eginik jarraitzeko asmoz, ezta?

Hori zen nahi nuena. Elizondon Lan-

bide Heziketa ikasi ondoren, Otsagabian praktikak egin nituen enpresa txiki batean. Han ipar eski monitore gisa aritu nintzen zazpi urtez negu garaian lanean.

Lakabetik joan eta etorrian?

Bai, baina iritsi zen memento bat non gazte guztiak hemendik joan ginen. Batzuk beste proiekturen bat sortzen saiatu ziren eta nik nire gisan bizi nahi nuen. Hiru urte eta erdiz kanpoan ibili nintzen, European barna bidaiatzen. Zaraitzu ibarreko Ibiltzietan urtebetez bizi izan nintzen, baina hona itzuli nintzen, proiektu honetan parte hartu nahiago nuelako.

Zer da herri komunitario bat?

Ez daude bi proiektu berdin. Hau, adibidez, herri abandonatua zen, 60ko hamarkadan azken biztanleak joan zirenetik. 1980an gazte talde bat etorri zen. Gehienak Bilboko kontzientzia-objektio talde bateko kideak ziren, eta hiritik kanpo, mendialdean, bizimodua bilatzeko asmoa zuten. Bi urte lehenago hemen ondoan zegoen herri txiki-txiki batera etorri ziren lehenbizi, han aloka-



Arkaitz Leon Muela

1985, Bilbo

Nafarroako Lakabe herri komunitarioko kidea da txikitatik. Idazlea. Bere liburuetan fantasia eta abenturak erabiltzen ditu errealitate ekonomiko, sozial eta politikoari kritika egiteko. *Relatos de Mithard* sagaren egilea da. Lehen, *Las tierras en juego*, duela bi urte eman zuen argitara. Apirilean bigarrenak ikusiko du argia: *El pueblo perdido*, Lakaben sortu berri duten (H)uts argitaletxearen eskutik. Beste mundu bat ahal dela aldarrikatzen duten liburuak nahi dituzte plazaratu zigilu honen bidez.

tu zuten etxe batera, hau aurkitu arte. 1980an, martxoaren 21ean, hau okupatu eta etxeak berreraikitzen hasi ziren. Orduan etxe bakarra zegoen teilatua zuena eta hasieran han bizi izan ziren guztiak. Gaur egun etxe komunitarioa da hori. Dena den, urte batzuk pasa ziren herriak komunitate egitura hartu zuen arte. Komunitatean bizitzeak esan nahi du herrian bizi garela eta herrian dagoen guztia guk kudeatzen dugula. Erabakiak batzarrean hartzen dira eta horretan heldu guztiok hartzen dugu parte. Etxeak, autoak, dirua eta gauza guztiak denonak dira. Norberak bizi den etxeari dagozkion erabakiak hartzen ditu, baina jabegoa denona da. Horretaz gain, arduren eta zereginen banaketa egiten da taldeetan: baratzea, animaliak, okindegia eta abar.

Istilurik ez da izaten?

Beti izan daitezke iritzi desberdinak baina gai hori asko lantzen dugu. Emozioak kudeatzeko bilera asko egiten dugu, jende prestatua ekartzen dugu errazte lanak egiteko eta dauzkagun desberdintasunak kudeatzen guri irakasteko. Iritzi desberdinak izatea aurrera egiteko arazo ez dadila bihurtu. Hori da lortu nahi duguna eta funtzionatzen du.

Alkaterik ez dago, beraz?

Badago alkate bat baina formala, besterik ez, administratiboki kontzeju bat garelako Artzibarreko Udalaren barranean. Herria hustu zen, baina Nafarroako Gobernuak ez zuen kontzejua desegin ordenamendu berria egiteko garaian, ordurako hemen bazegoelako berriro jendea bizitzen.

Nafarroako Gobernuak herria eta zelaiak erosi zituen. Pinuak landatu zituzten eta baimena eman ziguten hemen bizitzeko eta lur komunak kudeaketa eta egurrarena guk egiteko. Basozainekin markatzen ditugu bota beharreko zuhaitzak, egurra egiteko eta basoa garbitzeko. Gero gu arduratzen gara zuhaitzak mozteaz eta herrira ekartzeaz. Funtzionamendu normala da. Orain, denon artean saiatzen ari gara pinuak bertako espezieengatik ordezkatzen, artea eta pagoa bereziki.

Jendeak hau erabat desberdina dela pentsa lezake eta ez duela zerikusirik beste herri bateko bizimoduarekin. Gure arteko antolamendua desberdina da, baina beste gauza asko oso antzekoak dira.

Lehengo herrietako elkartasuna eta auzolana berreskuratzea da asmoa?

Antzineko bizimoduaren parte hori berreskuratzea da helburuetako bat, hasiera- hasieratik.

Jende askorentzat Lakabe ezaguna da zuen ogiarengatik.

Okindegikoa kanpora ateratzen dugun produktua da. Asko kosta zitzaigun aurrera eramatea eta ogia ongi egitea, baina asko ikasi ondoren jarduera hori sendotu eta indartu egin da. Nafarroan elikadura ekologikoan aitzindaria izan zen eta gaur egun Iruñean, Logroñon, Jacan... saltzen dugu. Horretaz gain azoka asko egiten dugu Nafarroa, Bilbo, Madril, Bartzelona eta Valentzian. Halako azokak antolatzen dituen Biokultura elkartearen hartzen dugu parte eta asko mugitzen gara zirkuitu horretan.

Barazkizaleak zarete?

Hasierako urteetan denak ziren barazkizaleak, baina batez ere behararengatik, baratzea besterik ez zutelako. Orain denetatik dago eta orojaleak gara gehienak.

Zer garrantzi du arkitektura jasagarriak Lakaben?

Hasieran modu konbentzionalen eraiki ziren etxeak eta hemen zeuden materialak, baina azken hamar bat urteetan arkitektura bioklimatikoaren printzipioak jarraitzen ari gara. Hemengo gazte batek horren inguruko ikasketak egin zituen eta duela gutxi etxe bioklimatikoa eraiki zuen. Beste etxeekin alderatuta energia kontsumo askoz txikiagoa du. Egur gutxiago behar du, ur beroak eta etxe oso-

ko berogailuek ere eguzki energiaren funtzionatzen dute, adibidez. Herrian bada beste etxe bat lastozko hormak dituen. Ekarpen horiek beste etxeetan ere erabiltzen ari gara poliki-poliki.

Energia berriztagarriak baino ez dituzue erabiltzen?

Bai. Energia sistema isolatua dugu, autonomia: eguzki plakak, haize errota eta ur turbina. Bateria sistema bidez gordetzen dugu energia, eta beharrik izanez gero, sorgailua dugu argindarra sortzeko, baina ez da ia inoiz erabiltzen. 1999tik gabiltza horrela. Lehenago prekarioagoa zen, baina orain argindar korronte normala dugu etxe guztietan.

“Jendeak pentsa lezake Lakabeko bizimoduak ez duela zerikusirik beste herri batekoarekin. Antolamendua desberdina da, baina beste gauza asko oso antzekoak dira”

Lege autonomo izan zaitezke?

Bai, kableak honaino ez direlako iristen. Ezin da konexiorik egin eta legeak ezin zaitu behartu. Bestela sare nagusira konektatu behar duzu eta energia saldu eta erosi.

Eta internet?

Internet duela zenbait urte iritsi zen, baina hasieran oso konexio kaskarra genuen. Duela lau bat urtez geroztik, Iberbandarekin, landa eremuetan seinalea irradiatu behar duzu eta energia saldu eta erosi.

Zein da zure eguneroko lana?

Baratzean eta fruta-arbolekin aritzen naiz, batez ere. Okindegian ere lan egiten dut eta maiz tailerrak ematen ditut kanpoan. Horretaz gain, antolakuntzan egokitzen zaizkidan lanak egiten ditut.

Eta idazten nola hasi zinen?

Txikitan ipuinak idazten nituen. Gazte-

tan literatura fantastiko asko irakurtzen nuen eta rol jokoetan ere aritzen ginen maiz. 17 urterekin hasi nintzen nire lehen eleberria idazten. Sagaren sorrera izan zen hura. Liburua bukatu gabe utzi eta bolada batez idatzi gabe egon nintzen, baina 21 urte nituenean berriro ekin nion, eta lehen idatzitako hura ez zitzaidan gustatzen berriro hasi nintzen. Azkenean, amaitu eta duela bi urte argitaratu nuen. Gustua hartuta, gelditu gabe sagaren bigarrena eta hirugarrena idatzi nituen eta orain laugarrenarekin ari naiz.

Nolako gaiak jorratzen dituzu?

Irudimenezko munduan hasi nintzen mugitzen oso gazte nintzela, baina gero denborarekin ikusi dut ez dudala soilik fantasiazko mundu horretaz idatzi nahi. Batailez eta elfoen istorioez gain, kritika kutsua eman nahi diet nire testuei. Mundu globalizatuan enpresa handiek egiten duten lurraren eta baliabideen kudeaketari buruz eta horrek gure bizitzetan duen eraginaz hitz egiten dut.

Nola sortu da (H)uts argialetxea?

Ines Muñoz, Vero Reza eta ni neu gara ideia izan dugunok, baina Lakabetik bultzatutako proiektua da. Denbora pixka bat daramat literaturan lanean eta gauza asko ikasi ditut edizioaren inguruan. Ideia sortu zenean abian jartzeko aukerak eta indarrak bagenituela ikusi genuen. Inesek duela sei urte agortuta eta katalogoetatik kanpo dagoen liburu bat berrargitaratzea proposatu zuen: *La poesía de los árboles*, Ignacio Abellak eginiko hainbat egileren poema bilduma, eta Cácereseko Leticia Ruiz Fernández-ek ilustratzailearen akuarelez hornitua. Lanaren egileei gure asmoa zein zen azaldu genien eta berehala esan ziguten baietz, gustura gainera.

Ondoren, argialetxeko beste bi kideei nire bigarren liburuaren pasaren nien. Argialetxe batek bazuen interesa nire liburuan, baina Verok eta Inesek ikusi zuten oso interesgarria zela eta bete-betean bat zetorrela argialetxearen helburuekin.

Nire lehen liburuaren autoedizioan argitaratu nuen eta oso bide interesgarria iruditzen zaigu, horregatik guk ere eskaintza hori egin nahi diegu autoedizioan bere lanak argitaratu nahi dituztenei. *Amaigabe* izeneko ziguila sortu dugu horretarako.



Txikitatik bizi da Arkaitz Leon Muela Lakabe herrian. Bere zeregin garrantzitsuenetako bat da baratzean aritzea. (H)uts argitaletxea ere abian jarri berri dute eta bidelagun du Ines Muñoz.



Zer motatako liburuak kaleratzeko asmoa duzue?

Kosta egin zitzaigun lerro editoriala zehaztea. Ez genuen genero bakarrera mugatu nahi. Argitale-txe txikiek espezializatzeko joera izaten dute eta guk ideia edo kontzeptu batean finkatu genuen gure berezitasuna: beste mundu bat egin litekeela. Eraldaketa soziala aldarrikatzen duten liburuak plazaratu nahi ditugu, izan eleberriak, poema liburuak, arte liburuak edo saiakerak. Horrekin batera naturarekiko harremana eta artelanak sustatu nahi ditugu. Pertsonak hunkitzen dituzten lanak nahi ditugu. Ideien arabera-ko bildumak egingo ditugu. Orain zuhaitzen olerkiak *Arte objektua*, *basoaren isiltasuna* bilduman aterako dira eta *Un pueblo perdido* narratiba kritikoaren bilduman.

Herri galdua diozunean, Lakabez ari zara?

Askotan galdetu didate, baina ez, ez da Lakabe. Herria bere zentzu zabalenean hartzen dut. Ez da populazio gunee zehatz bat.

Azken hitza:

Elikadura ekologikoaren garrantzia

“Baserritar asko dago eta lurra-erakiko atxikimendu handia dago Euskal Herrian, baina joan den mendean indar handiz sartu ziren produktu eta lurra lantzeko modu berriak. Gaur egun, herri txikietan jendea herbizidak gozokiak balira bezala botatzen ikusten da eta frogatuta dago kaltegarria dela gure gorputzarentzat eta lurrarentzat. Lur emankorraren geruza gero eta kaskarragoa da eta ura iragazteko ahalmena galtzen du. Errekak maiz uhertuta ikusten ditugu, lurra ez da goelako lehen bezain ongi finkatuta. Orain, lurra zaindu behar dugunaren kontzientzia hedatzen ari da. Produktu ekologikoak eta kontsumo taldeak gero eta zabalduko daude. Adibidez, Iruñean autobus geltoki zaharrean, udala planteatzen ari den merkatu ekologiko iraunkorraren proiektuan interes handia dugu”.

dute. Erraza da konturatzea zein herrialdez ari naizen solasean une bakoitzean: AEB, Afrika, Txina...

(H)uts izena zergatik?

Hutsean aukerak amaigabeak direlako. Dena da posible. Euskaraz jarri nahi genuen izena, hizkuntzari diogun errespetua eta atxikimenduagatik. H-a parentesi artean dago, mutu izanik hutsaren ikurra delako.

Euskarazko lanak argitaratzeko asmorik bai?

Lan aproposen bat agertzen denean argitaratuko dugu. Nik, oraingoz, ez dut uste eleberria euskaraz idatziko dudarik, mailarik ez dudalako. Gauzatxo batzuk, eguneroko bat eta poesia batzuk badituz, baina besterik ez.

Zergatik galduta?

Zanpaturik bizi delako eta irtenbide berrien bila dabilelako. Nire liburuetan agertzen diren herrialdeek eta gertaerek erreallitatean daudenekin parekotasun osoa

Proiektu gehiago du (H)utsek?

Taldeetan sor litezkeen arazoak kudeatzen laguntzeko liburua izan liteke hurrengo, herriko kide batek prestatutakoa. ■



EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:
 ARGIA ASTERO, HILEAN 12 € BAINO EZ.
 ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 7 € BAINO GUTXIAGO
 ARGIA HILERO, HILEAN 4 € BAINO GUTXIAGO

943 371545
 HARPIDE@ARGIA.EUS
 WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA



AEBetako primarioak aldaketa sozialaren sintoma

Orain 10-15 urte periferia kapitalisteko herrialdeetan hazitako aldaketa olatua iritsi da Mende-baldera. Krisi ekonomikoa baino lehen, borroka postmaterialista nagusitu zen. Eztabaida nagusia bizitza estilo eta jarriaren arteko gatazkan kokatzen zen. Sinplifikatuz, hezkuntza maila altuko hiriguneetako kultura liberal-aurre-rakoia eta klase tradizionalen kultura kontserbadorearen arteko gatazkaz ari gara. Horrela esplikatzeko da Barack Obamak urtean 200.000 dolar baino gehiago irabazten zutenen artean hauteskunde babes handiena lortu izana eta Mitt Romney hautagai errepublikarrak 50.000 dolarretik behera irabazten zuten langile klase zurikoen artean.

Bi balore multzo horien artean iparramerikar gizarteak nabigatu ahal izan du, burbuila ekonomiko zenbaitek sortu zuten ilusio faltsuak lagunduta. Errealitatea ordea oso bestelakoa izan da, azkeneko 20 urteetan soldatak eros-ahalmena galtzen joan dira eten-gabe, eta ondorioz, klase arteko distantziak handituz esku gutxi batzuetan kontzentratu da AEBetako aberastasuna. Garai batean Washingtonek horrelako egoerak orekatzen zituen lehen-gai eta merkatu berriak konkistatuz: aberastasunaren banaketan lanaren partaidetza (ehunekotan) txikitu egiten bazen ere, ekonomiaren tarta handitu egiten zenez termino absolutuetan langileek ez zuten galerarik. Baina periferia kapitalistaren autonomizazio prozesuak arazoak sortu dizkie AEBei bere tarta handitzeko, izan ere, munduko ekonomian kontrola eta kuota galtzen ari da. Parte handian, horrek azaltzen du iparramerikarren jarrera hiperaktiboa eta esku-hartzailea nazioartean, maiz estatu kolpeak eta gerrak bultzatzen ditu-eta.

Politika inperialista trabatzearekin eta burbuila guztiak zultatzearekin,



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AsierBlas

Obamak "amets amerikarraren" ideia berreskuratzeko beharra aldarrikatu zuen krisitik irteteko. Baina ezin zuen funtzionatu. Klase ertainaren ezaugarri politiko nagusia da segurtasun sozioekonomikoa izatearen pertzepzioa eta etorkizunari begira bere seme-alabek patrimonioa heredatu eta handituko dutenaren segurtasuna, horregatik, ez dute beharrik ikusten birbanaketaren aldeko borrokan inplikatzeko

AEBetako barne kontraesanak estutu eta krisiak aurrera egin ahala, oreka guztiak astindu eta zalantzan jarri ditu. Klase haustura, generokoa, belaunaldi-

koa, geografikoa, kulturala eta arrazakoak indartu dira krisiaren erdian. Inperioaren gainbeheraren zauriak oso sakonak eta agerikoak dira. Orain eztabaida ez da Obama eta Tea Party mugimenduaren artean, orain eztabaida Occupy Wall Street eta eskuineko populismoaren artekoa da.

Obamak "amets amerikarraren" ideia berreskuratzeko beharra aldarrikatu zuen krisitik irteteko. Baina, ezin zuen funtzionatu. Klase ertainaren ezaugarri politiko nagusia da segurtasun sozioekonomikoa izatearen pertzepzioa eta etorkizunari begira bere seme-alabek patrimonioa heredatu eta handituko dutenaren segurtasuna, horregatik, ez dute beharrik ikusten birbanaketaren aldeko borrokan inplikatzeko. Egun aldiz, Bigarren Mundu Gerraren osteko eredu hori hautsi da, eta haustura horren interpretazio eta kudeaketarengatik piztu da borroka, ezkerretik Bernie Sanders, eskumatik Donald Trump, eta maila apalagoan Ted Cruz eta Marco Rubio.

Primarioetan outsidersak dira protagonista nagusiak. Europako zenbait herrialdeetan bezala, geroz eta zabalduago dago *stablishment*aren aurkako jarrera. Jendeak *kasta* politikoan baino, konfiantza gehiago du alderdietako aparatuetik kanpo dauden politikariengan. Trumpek ideologiarik gabeko klase borrokaren bandera altxatzen du, Sandersek aldiz, finantza munduaren aurkako diskurtsoa astindu eta ezberdintasun sozioekonomikoak eztabaidaren zentroan jarri ditu. Halere, azken horrek ez du erraz izango. Botere faktikoek, demokraten aldean dauden super-delegatuek (primarioetan hautatzen ez diren alderdikideak, nagusiki Hillary Clintonen aldekoak), gutxiengoen liderrekin Clintonek duen bezero-harremana eta boto erabilgarriak Bernie Sandersen aurka egiten dute. ■

Agur Arnaldo! Agur obispo jaunak!

Agur, Arnaldo. Adierarik onenean: *augur* onak opatzen dizkizudala alegia. Onartu omen duzu lehen-dakarigai izatea. Eta ezker abertzale formalean horixe dute itxaropen, gainbehera azeleratuari itxura antzeko galga jarri ahal izateko.

Ez duzu lantegi makala. Urte askotako norabide ezin okerragoaren ondorioz, lehengo zaharretan katramilatuta, ezker abertzaleari kontuak ustelduz doazkio aspaldian. Iraganeko kondarrak ahoan, belarri eta begietan, etorkizunari aurre egiteko garbiketa eta sorkuntza lan eskerga behar du.

Estrategia onak aukeratu beharko dituzu, mando zaharrekin ezin lasterketa irabazi eta. Mugak ere ongi jarri: ez da zilegi edozer egitea ustez arrazoi teorikoa izateagatik. Onenei erreparatu eta harrokeriak baztertu. Helburuak lortzeko beste alderdietan ere adiskideak behar dira. Gipuzkoan lau urtez ahalmenak erakusteko aukera izan eta erremateko kalifikazioa *Ez nahikoa* izan da. Zaborren kontua kale itsuan utzi duzue zabor bihurtuta.

XXI. mendean behar dugun ezker abertzale sendo eta pozgarria garatzeko XIX.eko mundu ikuskerak ez du balio. Esan duzu ausartu egingo zarela eta irribarra eskatu, Arnaldo. Horregatik behintzat merezi duzu bozka.



Jose Ignazio Ansorena

TXISTULARIA

Kristau sentitzen garenontzat lotsagarria ez ezik, ernegagarria ere bada "beltzeko gizon" horien portaera

Agur ere Baionako apezpikuari, Marc Ailleti. Baita Donostiako José Ignacio Munillari ere. Baina bestelakoa: *adio*, luze arte esatekoa.

Kristau sentitzen garenontzat lotsagarria ez ezik, ernegagarria ere bada *beltzeko gizon* horien portaera.

Edozein astakeria esaten ausartu eta erridikulo galanta sentiarazi gehienoi. "Homosexualitatea senda dezakeela" batek, eta "abortoa atentatu jihadistaren antzekoa dela" besteak, baita babukeria zerrenda amaigabea esan ere.

Ebanjelioetako esaldirik ederrenetakoan Jesusek dio: "Ez izan beldur". Fedehelduak poza eta indarra ematen baitu. Inkontziente horiek *Berri ona* ilun eta izugarri bihurtzen dute. Zoazte mesedez.

Abel Azkona artista epailearen aurrean salatu du Espainiako abokatu kristauen elkarteak. Azkonak eliza katolikoan gertatu diren pederastia kasu ugariak eta berauek ezkututzen egindako ahaleginak agerian jartzeko hostia sagaratuak erabili ditu. Nire kristau ikuspegitik Jesusen gorputzaren erabilpen ederra.

Arropa sakratuak jantzi arren, benetako jardun blasfemoan aritu diren pedofiloak sozietate osoaren aurrean nabarmen uztea ekimen erlijiosoa da. Guztiz errugabe diren gorputz eta ari-ma gazteak bidegabe betirako markatu dituztenak horiexek dira sakrilegoak.

Mesias berriro munduratuko balitz, Josune izango litzateke, siriarra eta Abel Azkonaren adiskide. ■

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Argi Kalea 28, 31014 Iruña Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

www.eskulanen-etxea.com

Eskulanen Etxea

Elkano kalea, 5 · Donostia · 943 420 205

Demarkia



Iñaki Odriozola
IRAKASLEA

Ez dakit Atenasen, demokrazia eratu zutenean, boterea herritarren esku ote zen. Ni ezezkoan nago. Han ere, eliteak, herritarrei euren buruaren jabe zirela sinestarazi ziela iruditzen baitzait, bertako lur-jabe eta aberatsen mesedetan.

Erromako errepublikak eraman zuen aurrera, demokrazia sistema politiko lez; horregatik inork ez du demokrazia kontsideratzen. Elite erromatarrek errepresentazio sistema garatu zuten, haien herritarrengandik urruti, legea bera gorpuztu zuten zuzenbidea sortuz, “ogia eta zirkoan” kontzentratua zeukaten jendartearen begien aurrean.

Absolutistek eurek ere uzten zioten herriari hainbat gauza erabakitzen, elite nobleen aurka joaten ez zen bitartean, eta azkenik, ilustratu naif edo zinikoen esku gelditu zen demokrazia hitza, botere ekonomiko berriaren babestoki zen artean.

Gaur egun ere hala da: sistemaren alderdiak daude, eliteen morroi leialak. Batak edo besteek agintzen dute demokrazia homologatueta, inork ez dakien norbaitek ematen dien kalitate titulu maltzurra jasoz. Baina kontuz, beste inori ez diote utziko agintzen. Eta noizean behin ihes egiten bazaie, Gipuzkoan gertatu zen lez, edo orain estatuko hiriburu batzuetan, indar guztiek bat egiten dute, botere eta lobbyek, egoera neutralizatu arte.

Norbaitek, ez edonork, esan zuen demokrazia zela sistema txarretatik onena, baina nik uste, benetan, bera dela gaiztoena. Alde batetik, demokrazia homologatuak dauden tokietan, sistema

ekonomikoa erabat ziur sentitzen da, babesturik eta ezkutuan, izan ez balitz bezala, gauzak ondo doazen bitartean behintzat. Hain seguru dago bere iraupenaz ezen ez diela gobernuan edo legebiltzarrean dauden politikariei, ez epaileei, ez irakasle eta intelektualei, ez sindikatu-buruei, ez komunikabideetako erredaktoreei agindurik edo aholkurik ematen. Zertarako, barneraturik baitauzkate sistemaren balioak! Gainera, boterearen alde edo inguruan daudenak ere etekinik behar dutelako korrupzioa estrukturala bihurtzen da, ez behin edo behinekoa. Eta denak hala delakoan.

Bestetik, demokraziak zapalduen sinestarazten die eurek ere badutela jendartearen bilakaeran zeresanik, dela parte hartzea, dela bozkatzea, eta, hortaz, zapalkuntzaren pertzepzioa ezkututzen du. Askatasun sentsazioa garatzen du estatuaren asketatik jaten dutenengan, etekinak ateratzen ari diren eremuetan, eta txarrena, egungo “zirkoa” ikusten ari den herritar arruntean.

Demokrazia hitza hain ajeaturik, zikindurik eta zabar eta manipulaturik erabiltzen da jada, ezen zentzua erabat galdu duela, eta “herriaren boterea” ez beste edozer adieraz dezakeela. Euren burua demokratizatzen daukaten eliteko partaide edo morroiak ikustea besterik ez dago. Horregatik esango dut ni ez naizela demokrata.

Bereizte aldera izena aldatzea proposatzen dut: Demarkia: Herriaren benetako boterea adierazten duen hitz berri eta garbia. Zergatik ez? ■

Kalea guztiona?



Oihana Etxebarrieta
KAZETARIA
@BetaurrekoMorea

Zein da udal baten lana eraso matxista baten aurrean? Horixe galdetu diot nire buruari Irunen jazotako azken erasoaren erantzuna ikusita. Hauxe da kontua: Udalak, hirian gertatutako eraso baten aurrean, herriko eragile sozial eta talde feministek duten protokoloa kopia eta haiek deialdia egin aurretik, ordu eta leku berean kontzentratzera deitu zuen.

Intentzio onarekin egin duela ez dut zalantzan jartzen, baina horregatik ez zait erabakia onargarriagoa iruditzen. Nola da posible herriko eragileek egiten duten lana bere egitea? Eta hasierako galderara narama berriz buruak.

Zer egin behar du udal batek indarkeria matxistaren aurrean? Erantzuna sinpleegia irudituko zaizue, baina nik argi dut: babestu eta bere burua eraldatu. Herriko mugimendu feminista, emakume elkarte eta ekimen ezberdinak babesten eta bidea egiten laguntzen aritu beharko luke. Udalaren tokia udalean dago, politiketan, instituzioen arteko harremanak garatzean eta mugimenduena kalean, kontra-boterean, udalei herriaren ikuspegia ematen. Eta harreman horrek gora beherak, sartu irtenak, elkarlanak eta elkar markajeak izan beharko ditu. Baina bakoitzari bere tokia, bakoitzari bere protagonismoa. ■

KIROL APUSTUAK

AZPIJOKOA ARBITRO

Kirol apustuek, legezkoek eta bereziki klandestinoek, diru kopuru erraldoiak mugitzen dituzte. Gutizia mamitsua askorentzat, noizbehinka emaitzak baldintzatzen dituztenik ezin uka daiteke, teniseko eskandaluak lekuko. Praktika orokortua dela esatea, ordea, gehitxo litzateke. Baita soilik mafiak edota kirolariak seinalatzea ere, botere-sistemak iruzurra maila guztietara zabaldu duenean. Gauza ugari eros baitaiteke apustu-txarteletz gain.



Jon Torner Zabala

@jtorner

Hamasei tenislari profesionalek iruzur egin zuten pasa den hamarkadan jokaturako zenbait partidatan, besteak beste Wimbledon torneoko hirutan. Munduko 50 onenen artean zeuden hamaseiak, eta bazen Grand Slam zirkuituko txapelketaren bat irabazia zuenik ere, BBC kateak eta BuzzFeedNews webguneak azaleratu dutenez. Nahita galdu izanaren zantzuak daudela, horixe diote tenisaren zintzotasuna bermatzea helburu duen TIU unitatearen filtratutako barne-dokumentuek, irregulartasun eta ustelkeriaz mintzo direnak eta, besteren artean errusiar eta italiar mafiak seinalatzen dituztenak. Ustez, tenislariak -haien izenak ez dituzte plazaratu oraindik- 50.000 euro baino gehiago jaso zituzten pilota trakets astintzeaga-

tik. Dejadari, baina, erremate pozoitsuarekin erantzun dio historiako eskandalurik handienetakoa izan daitekeenak.

Novak Djokovic tenislariak onartu du 2007an 50.000 euro ez baizik eta 180.000 eskaini zizkietela San Petersburgoko txapelketan partida bat galtzeagatik. "Kirolaren aurkako krimena da", adierazi du: "Nik dakidala horrelakorik ez da gertatzen *top* mailan. Beherago koetan, agian gertatuko da eta agian ez". Kriminalak, izatekotan, auzokoenean. "Gogor egin behar zaio aurre, dopinaren aurkako borroka eredu", esan du Roger Federer suitzarrak. Eta dopinarekin, edota futbol eta atletismoko goi-organoak lokaztu dituzten ustelkeria kasuekin gertatu den moduan, nahikoa lan du bakoitzak norbere burua zuritu, adis-

Teniseko goi-organoen "hipokrisia" gogor salatu du hainbat jokalarik, apustuak jazarri nahi badituzte, zentzurik ez duelakoan zenbait torneok apustu-etxeak izatea babesle, Australiako Irekiak adibidez. Roger Federer ageri da argazkian, William Hill operadorearen logoa atzean duela.

ATP WORLD TOUR



kideak salbuetsi eta arretea desbideratzen, ebidentziak aurka jausi bitartean bederen. "Ziur naiz tenisean iruzurrak izan badirela, baina eskua sutan jarriko nuke nire hurbilekoen alde". Feliciano Lopezen hitzak dira. ATP Tenislari Profesionalen Elkarteko presidentea, Chris Kermode, maiz kritikatu izan dena kontrol-sistemen gaineko salaketei entzungor egiteagatik, saiatu da zikinkeria ezkututzen, baina hautsa harrotu besterik ez du egin: "Ustelkeriaz ari garenean, kirol guztiak daude arrisku egoeran". Michael Franzese mafioso ohi eta gaur egun zuzentasun lezioak partitzen dabilenak ohartarazi gintuen 2009an: "Aurrez adostutako partidak errealitatea dira tenisean, nahikoa da jokalaria bat erostea emaitza nahieran moldatzeko".



Kerik egonez gero, sua den seinale

Apustu-etxeek uneoro kontrolatzen dute haien kotizazioetan bariazio arraroak ote dauden, jokalariek ohikoak ez diren diru kopuruak inbertitzen ote dituzten itxuraz zentzurik ez duten emaitzen alde. 2015ean, ESSA Europako Segurtasun Agentziako kide diren operadoreen alerta-sistemek 100 abisu eman zituzten, haietako 75 tenis partiden gaineko susmoengatik, agerian utziz iruzur arriskua handiagoa dela banakako kiroletan taldekakoetan baino.

Hala berretsi digu RETA apustu-etxeen operazio zuzendari Jose Antonio Martinek: "Askoz ere errazagoa da tenislari bat erostea, futbol talde osoa baino". Horretan saiatu aitzin, hobe zuzenean arbitroa limurtzea, 2006an mafiek ez

baizik eta Turingo Juventusek edota Silvio Berlusconiaren Milanek egin zuten moduan. "Dena den -dio Martinek- zenbat diru ordaindu beharko litzaioke puntako tenislari bati, kontuan hartuta urtean milaka euro irabazten dituela? Ez dauka tamainako saltsetan murgiltzeko batere beharrik. Amateur mailari arrisku handiagoa ikusten diot. Kerik egonez gero, sua den seinale. Tenisean izan dira kasuak, ez dago ukatzerik, baina hortik partidak kontrolatzen dituen mafia bat dagoela esatera... Guri eragin al digun? Ez, ez. Gurean kopuru txikiak joka daitezke aldiko [100 euro gehienez ohiko apustuetan]. Teniseko iruzurrak azalerratu direnean 'zuek ere erosiko zenituzten partidak!' esan dit baten batek. Ze kristo erosiko nuen nik partidarik!? Guztia oso

» Iruzur arriskua handiagoa da banakako kiroletan taldekakoetan baino, are handiagoa telebistarik ez dagoen horietan



RETABET

BLOG DE BASKET

kontrolatuta egonik ere, mundu mailan, legez kanpoko esparruetan bereziki, argi dago zerbait gertatzen ari dela". Onartzen du Internetek segurtasun eza handitu duela, baina RETAn bezero guztiak identifikaturik dituztela esan digu: "Txinatar mafia, adibide bat jartzearen, ezin da gure zerbitzuetan sartu. Hemen go makina batera etorri beharko lirateke ez dakit zenbat milioi euroekin".

Eta -galdetu diogu- uste duzu, baina edo binakako kirola den heinean, esku-pilota izan daitekeela iruzurren biktima?-. "Ez. Hemen ez dago legez kanpoko jarduerarik. Polemika bai, beti izan da; pilotariak enpresenak dira, eta enpresa bereko bik elkarren aurka jokatzen dutenean, arrisku hori badago, baina hortik aurrera... Denboran atzera eginez gero *tongoak* aurkituko ditugula? Ziurrenik bai, inondik inora ez da ohikoa ordea. Lehengora goaz, zenbat ordaindu beharko zenioke Irujori partida bat apropos galtzeko? Maila apalagoetan errazagoa litzateke, baina guk sekula ez dugu ezer arrarorik sumatu. Ba-

» Futbolean, urtero aireratzen dira maletatxo trafikoari buruzko trapu zaharrak, eta euskal klubak ez dira salbuespen. Hor ditugu Osasunako agintari ohiak, partidak erosi izanagatik inputatuak

daezpada ere, herri txikietan jokatzen diren partidak zorrotzago kontrolatzen ditugu Irujo-Olaizola bat baino, bada-kigulako ez dela ezer arrarorik gertatu-ko". Zentzuzkoa dirudi festibal batzuk hurbilagotik zaintzea, azken finean, argi hitz eginda, pilotariak euren buruaren aurka apustu egin dezaketelako, sos batzuk izerdirik bota gabe irabazi aldera.

EAEko hiru apustu enpresek (Eka-sa-RETA, Codere eta Teleapostuak-Kirolbet) 26,7 milioi transakzio egin zituzten 2013an, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak iaz plazaratutako *Jokoaren II. Liburu Zuria* txostenak jaso duenez. 2015eko lehen hiruhilekoan 10 milioi euroko etekin garbia izan zuten, 2013an baino hiru milioi gehiago. Orotara 72 milioi euro jokatu eta 62 banatu zituzten saritan. Nafarroan, aipatu hiruez gain, Sportium eta Apuestas de Navarra enpresek ere badute lizentzia. RETAko Jose Antonio Martinek esan digu haienean 200.000 operazio inguru burutzen direla egunean, futbola dela ezbairik gabe nagusi,



KIROLBET

Apustu operadore pribatuek –loteria erakunde publikoek ere bai– zientoka kirol ekimen eta talde babesten dituzte, besteren artean pilota, saskibaloia (RETABET.es GBC Donostiako taldea esaterako) eta futbola (Reala dugu adibide), eta euren pronostikoak etengabe haizatzen dituzte webgune, telebista, irrati eta egunkariak. Haien irudia normalizaturik dago erabat. Aldiz, Jaurilaritzaren liburu zuriak erakusten du herritarren erdiak publizitatea mugatu eta lautik batek debekatu egingo lukeela, adingabeak eta jokoarekin arazoak dituzten pertsonak babestu aldera. Helburu horrekin, administrazioek gidalerroak markatzen dituzte: operadoreek jokoaren arriskuez ohartarazi behar dute, iragarkiek ez diote jokalariai pentsarazi behar bizi kalitatea hobetuko zaionik, sariak lortzeko probabilitateaz eskaintzen den informazioak guztiz argia izan behar du, eta abar.

eta pilotak ere jarraipen zabala duela. Mundu mailako dimentsioez jabetzeko datu bat: Betfair apustu-etxean 6 milioi transakzio baino gehiago egiten dira egunean, Londres eta New Yorkeko burtsen baturak baino gehiago. Eta aurtten Joko Olinpikoak eta Europako Futbol Txapelketa jokatu dira. Atera kontuak.

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzatik azaldu digutenez, lizentziak esleituta dituzten apustu-etxeek dute, hain justu, iruzur-jarduerak prebenitu eta galarazteko interes handiena, “beren izen ona, negozioa eta jardueraren garbitasuna babestu nahi dutelako”. Teniseko polemikak hizpide, uste dute horrelako

kasuak ezin zaizkiola apustu jarduerari egotzi, baizik eta, beste edozein esparrutan bezala, “zernahi egoera amarruen bidez dirua egiteko baliatu nahi duen jendeari”.

Izebergaren punta

2015eko abenduaren 20a. Espainiako 3. mailari dagokion Paterna eta Castellón-en arteko neurketa. Hura bezalakoetan operadoreek 140-190 euro mugitzen badituzte, haietako batek 3.700 euroko fluxua izan zuen egun horretan. Bitxia. Are bitxiagoa apustu gehienak Asiatik egin zituztela eta nolakoak izan ziren ikustea: Paternak ez zuela parti-

PILOTALEKUETAN APUSTUAK BEHERA

Esku-pilotari dagokionez, zale eta artekariak bat datoz: azken urteotan apustuak izugarri murriztu dira, pilotalekuan bertan egiten direnak bereziki. Pilotazale gipuzkoar batek azaldu digu hainbat faktorek eragin ahal izan dutela beherakada: “Internetez jokatzeko da geroz eta gehiago, poltsikoak duela 6-8 urte baino hutsagoak ditugu, azpiko dirua falta da –partida askok faborito oso argiak dituzte eta haien kontra jokatu nahi duenik ez dago–, eta geroz eta gutxiago dira frontoi osoaren aurka oldartzen diren tiburoi handiak. Tontakeria dirudi, baina partida gehienak telebistaz ematen dituzte, eta tailerra erregulazio espedientepean duen enpresaria patxada ederrean apustu egiten ikustea...” –Horregatik aritzen al dira hainbeste telefonoz?– “Izan liteke. Esango nuke diru gehiena hor mugitzen dela”. Zurian ala beltzean egiten den, hori beste kontu bat da. Ipar Euskal Herriko frontoietan, apustuak debekaturik daudenez, artekaririk ez da aritzen builaka, baina horrek ez du esan nahi saltsarik ez dagoenik. “Jokatzen da, eta asko gainera, baina bitartekaririk gabe, bai pilotalekuan bertan, baita lehenago ere, ostatuan-eta”, esan digu pilotazaleak. “Ez zait iruditzen tongoak ohikoak direnik, nahiz eta izan den kasurik erremontean-eta, isilean pasa direnak, baina ez dira gaur goizeko kontuak”.

da irabaziko (bat eta hutsekoarekin), Castellón irabaziko zuela (galtzen hasi eta hamabost minuturen faltan bana zihoazen arren), eta gutxienez hiru gol sartuko zirela. Hiru pronostikoak asmatu zituzten. Beste enpresa batzuetan, gauza bera. Kotizazioetan izan ziren bariazioek apustu-etxeak alertan jarri eta bakarren batek operazioak etetea erabaki zuen. Susmoak areagotu egin ziren partidaren irudiak tentuz aztertzean: Paternako atzelari batek ostiko zentzugabeak eman zituen area barruan, ustez penaltia probokatu asmoz, eta Castellón jokalariek bizpahiru metro ateratzen zizkieten korrikaldi bakoitzean.

Federbet, kirol apustuen sektoreko enpresariak biltzen dituen elkarteak dioenez, telebista kameran begiradatik at dauden amateur mailako eta emakumezkoen futboleko dago arriskurik handiena, eta zoratzeko moduko zifra bat eman du: Asian legez kanpoko apustuek 70.000 milioi euro mugitzen dute astean. Egoitza Bruselan duen elkarteak jakinarazi du 2013-14 denboraldian azpijokoa egon zela europar ligetako 110 partidetan –Italia, Grezia eta Ekialdeko herrialdeetan batez ere–, eta 460 gehiago susmopean daudela. Salatu du ez poliziek ezta federazioetako kontrol-organoek ere ez dituztela neurketa horiek ikertu, “euren txapelketaren izena zikintzeko beldurreratik”. Europolek plazaratutako datuen arabera, 2008-2011 arteko ia 400 partida leudeke susmopean, Txapeldunen Ligakoak eta Hegoafrikako Munduko Koparako sailkatze-faseko batzuk tartean. “Izebergaren punta da”, esan du Rob Wainwright polizia-buruak.

FIFAk, futbolaren hariak Zurichetako bunkerretik mugitzen dituenak, arazorik ez dagoela dio, legez kanpoko apustuen auzia kontrolpean duela, Joseph Blatter presidente ohia eta beste zenbait goi-kargu inputatuak diren bitartean diru zuriketarik, fabore eta opariak trukatu eta botoak erosteagatik. Errege futbolaren palazioan ere zakurrak oinutsik. Liga guztietako denboraldi amaiera guztietan aireratzeko dira maletatuko trafikoa buruzko trapu zaharrak, eta euskarri klubak ez dira salbuespen. Hor ditugu Osasunako agintari ohiak, 2013-14 denboraldian partidak erosi izanagatik –besteak beste– epaile aurrera hainbat bider eraman dituztenak. 1993an, Didier Deschamps baionarra, Marsellako Olympique taldeko jokalaria zenean, Bernard Tapie presidenteak prestatu zuen iruzurraren lekuko zuzena izan zen: Valenciennes taldearen aurkako partida erosteagatik bi urteko espetxe zigorra ezarri zioten enpresa-gizon eta politikari polemikoari, zerga-iruzurragatik inputatu baino hiru urte lehenago. Hemerrotekari azaleko errepasoa ematea nahikoa da hamaika adibide gehiago topatzeko.

“Iruzurrei buruzko txutxu-mutxuak etengabeak dira, baina nik ez dut sekula ezer arrarorik ikusi”, azaldu dio Paterna taldeko atezain ohi Kiko Morenok *El Mundo* egunkariari: “Egia da 3.



Eduardo Galeano idazle uruguaiarrak hausnarketa zorrotzak jaso zituen ‘El fútbol a sol y sombra’ liburuan. Arbitroen hanka-sartzeak hizpide, futbolaren hariak mugitzen dituzten agintarien –argazkiko Joseph Blatter eta enparauen– jarreraz mintzo da pasarte honetan, ironiaz: “Saskibaloia, tenisa, beisbola, igeriketa, baita esgrima edota auto lasterketak ere, laguntza elektronikoaz baliatu ohi dira. Futbola ez. Jabeen azalpena komikoa litzateke, ez balitz susmagarria: ‘Errorea jokoaren parte da’, diote, eta ahozabalik uzten gaituzte, deskubritzen dugulako ‘errare humanum est’ dela”. ALEGERMINO / FLICKR.COM

mailan-eta, areago krisia hasi zenetik, jendeak oso gutxi kobratzen duela, askok euro bakarria ere ez. Pentsatzen dut erraza litzatekeela jokalaria bat erostea penaltia egin edota baloiak korrerera bidaltzeko. Maila hauetan apustuak debekatu egingo nituzke nik”. Ildo berean mintzo da Nicolas Almagro tenislaria: “Apustuak debekatu beharko lirateke”.

Auskalo soluzioa hori ote den, kontuan hartuta kontrolpeko apustuaren halako bost mugitzen dela legez kanpoko jardueretan, baina Espainiako jokoaren patronalak (Cejuego) ere adierazi du mesede egingo lukeela maila apaleko txapelketetan apustuak debekatzeak. ATP Tenislari Profesionalen Elkarteak kirolariaren kolaborazio handiagoa eskatu du, iruzur susmoen aurrean isilik mantentzen direlakoan, dopin kasuekin gertatzen den antzera. Tenislarien banku-transferentziak eta telefono-datuak kontrolatzea ere proposatu dute, nahiz eta pribatutasun eskubidearekin talke egin lezakeen; baita legez kanpoko apustu-etxeen aurkako polizia-operazio zabala abiatzea ere. Kirol munduko goi-organoen jardunari buruz, hitz erdirik ere ez. ■



**TALLERES
MITXELENA**
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

2016

FINALA

Etxarri-Aranazko frontoian, 17:00etan

Miguel Mari Elozegi "Luze"

Irati Majuelo

Jokin Pinatxo



laguntzailea

**informazio osoa eta sarrerek**

WWW.BERTSOZALE.EUS

ETA ZURE AURREZKIEK, ZER SUSTATZEN DUTE?

Sinplea dirudi: ohiko finantza erakundeek gure aurrezkiak baliatzen dituzte maileguak eman eta inbertsioak egiteko. Hori dute lehengai eta botere iturri. Gure ekarpena ezinbestekoa izanagatik ordea, inoiz gutxitan dakigu jarri ditugun sosek zein ibilbide egiten duten. Ez al dugu gure diruarekin zer sustatzen den erabakitzeko eskubiderik? Hori ahalbidetzen duten hainbat proiekturi begira jarri gara.



Lander Arretxea Bereziaartua

@larretxea

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Nahikoa da albistegiei erreparatzea: han eta hemengo etxegabetzeak, diru publikoz ordaindutako erreskateak, ustelkeria kasuak, preferenteenaren gisako iruzurrak... Inoiz izan bazuten, denbora da banku, aurrezki-kutxa eta ohiko finantza erakundeek izen ona galdu zutela. Eta guztiaren atzean, galdera bat. Haien –edo bederen goi-karguen– ardura al dira krisiak areagotu dituen desberdintasun ekonomiko eta sozialak?

Cristina de la Cruz Ayuso Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta finantza etikoetan aditua da. Dioenez, finantza erakundeek badute euren ardura krisi ekonomikoan eta bere ondorioetan, baina jatorrizko arazoa estrukturala da. “Finantza erakunde tradizionalak kapitalismoaren garapenerako era-kundeak

dira eta zentzu horretan erantzule direla esan dezakegu, baina kapitalismo neoliberalarena berarena da krisiaren erantzukizuna”.

Bat dator Liher Gonzalez Bilbatua ere. Finantza zerbitzu etiko eta solidarioak eskaintzen dituen Koop57-ko kide da. “Kapitalismoaren beste eremu guztiak bezala, finantzak kontrol neurririk gabe hobeto funtzionatu behar zutela defenditu izan da orain arte”. Finantzek sektore guztiak ukitzen dituztela dio, eta hortaz bertako akatsen ondorioak gizarte osora zabaldu direla.

Alternatibak, tresna politiko gisa

“Ohiko” izenda ditzakegun finantza erakundeez harago, badira espekulazioaren logika alboan utzi eta bestelako gi-

zarte eredu bat sustatzeko asmoarekin martxan jarritako alternatibak: finantza etikoak. Norberaren aurrezkiak zer sustatzeko erabiliko diren erabakitzeko aukera eskaintzen dute.

De la Cruzek argi du finantza etikoen alorrean dabiltzanak proiektu politikoak direla: “Praktika batzuetan oinarrituta, finantza harremanak demokratizatu nahi dituzte botere soziala sortzeko era berriak garatuz”. Zentzu horretan, azpimarratu du gisa horretako proiektuen tresna izaera, finantzazioa ezinbestekoa baita ekonomia sozial eraldatzailearen garapenean. Baina hori baino gehiago ere badirela dio: “Pertsonek eguneroko kontsumoan duten beste alderdi batzuetan bezala, finantza etikoek proposatzen dute gizartea eral-

datzeko militantzia ekonomikoa, ezen gure diruaren erabilpenak lagundu ahal baitu sistema ekonomikoa jarraitzen, edo, aldiz, lagundu ahal baitu ezartzen justuagoak, bidezkoago eta solidarioagoak diren eredu alternatiboak”.

Parte-hartzea eta gardentasuna oinarri

Finantza etikoak izenaren atzean ez dago ikuspegi etiko bat soilik, badira ohiko finantza logikatik bereizten duten hainbat ezaugarri zehatz. Bat, nabarmena: zer eta zergatik finantzatzen den. Liher Gonzalezek dioenez, negozioa egiteko beharrean, eraldaketa bultza-tzeko finantzatzen da, eta aurrezkiak bertara daramatzanak ere, ez du irabaziak izateko helburuarekin egiten. Maileguak eskuratzeko bete behar diren baldintzetan islatzen da hori. Proiektu bakoi-tzak bere irizpideak baditu ere, oro har gizarte eraldaketan diharduten GKEak, kooperatiba txikiak eta abar laguntzen dira. Etekin ekonomikoak izateko asmo hutsarekin sortutako ekimenei aldiz, ukatu egiten zaie mailegua. Gainera, finantza erakunde etiko horiek babesten dituzten bazkideek, mailegu guztien berri izateaz gain, erabakietan parte hartzeko aukera dute.

De la Cruzek, beste hitz batzuekin bada ere, antzeko ezaugarriak aipatu ditu: “Finantza etikoek esaten digute finantza-bitartekotza inbertitzeko errentagarritasun ekonomikoa bilatu gabe hurbiltzen diren pertsona eta erakunde-sarearen gainean eraikitzea beharrezkoa dela; zuzendaritza-karguen artean soldatak mugatu behar direla; bezeroek beren aurrezkiekin zer gertatzen den jakin dezaten diruaren ibilbide osoan gardentasuna bermatu behar dela; errentagarritasun ekonomiko hutsa helburu duten eragiketak baztertu eta arlo jakin batzuetan inbertitu behar dela...”.

» **CRISTINA DE LA CRUZ**
(DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA):

“Gure diruaren erabilpenak lagundu dezake sistema ekonomiko honekin jarraitzen, edo aldiz, lagundu dezake ezartzen justuagoak, bidezkoagoak eta solidarioagoak diren eredu alternatiboak”

» **LIHER GONZALEZ**
(KOOP57):

“Kapitalari nahieran aritzeko bidea egiten diogu, eta orain arteko ereduarekin apurtu nahi badugu, gure ohiturak aldatzen hasi beharko dugu”



EUSKAL HERRIKO HIRU AUKERA

KOOP57

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA BULTZATZEN

Koop57 aurrezki etikoa bultzatzen duen finantzaketa zerbitzu kooperatiba da. Ekonomia sozial eraldatzailerak oinarri duten proiektuak maileguz laguntzen ditu; horizontaltasunean oinarrituta, gardentasunez eta gizarte eraldatzeko asmoz jarduten dute proiektuok. Ez du Fiare banku etikoa-ren moduan banku-fitxarekin operatzen, ez dauka aukerarik kutzazainak eta bestelako finantza produktuak edukitzeko, baina aldi berean ez ditu Espainiako Bankuak ezarritako araudi eta interes-tipoak kontuan eduki behar.

Kooperatibako bazkideak bi motatan bereizten dira: proiektuak babesteko aurrezkiak uzten dituzten bazkide laguntzaileak daude batetik; eta bestetik, aurrezkiak uzteaz gain, maileguak ere jaso ditzaketen zerbitzu bazkideak: kooperatibak, GKEak...

Kolektiboki, asanbladan erabakitzen da zenbateko irabazia izango duen diru ekarpenak, balioa ez galtzea oinarri hartuta. Babestu dituzten proiektu guztien berri izateko aukera ere badute bazkideek. Haietako bat izateko, 300 euroko gutxieneko ekarpena egin beharra dago.



OIKOCREDIT

HEGO HEMISFERIOARI BEGIRA

Hego hemisferioko herrialdeetan pobrezia aurre egiteko bokazioa duten proiektuak maileguz laguntzen dituen sozietate kooperatiboa da Oikocredit. Nazioarteko organismo zentralen erabakitzen dira maileguen eta inbertsioen gorabeherak, baina mundu osoan ditu jardun hori ahalbidetzen duten 30 elkarte, 13 herrialdeetan. Tartean, Euskal Herrian ere bai.

Kooperatibako bazkide izateko, gutxienez 200 euroko inbertsioa egin beharra dago, kapitalaren erosketaren bidez; horrek Oikocredit Euskadiren erabaki guztietan parte hartzeko aukera ematen dio ekarpena egiten duenari. Sozialki sortzen duen onuraz gain, ekonomikoki ere errentagarria da gainera: urteko asanbladan erabakitako ehunekoa %2 izan ohi dago hitzen baitzaio urtero norberaren inbertsioari.

Gardentasunari dagokionez, bazkideek modu asko dituzte beren diruarekin laguntzen diren proiektuen berri izateko. Webgunean duten datu-basea kontsultatzea da modu errazena, baina horrez gain, laguntzen dituzten proiektuak bertatik bertara ezagutzeko bidaiak antolatu ohi dituzte. Baita bertan lanean ari direnak Euskal Herrira ekarri ere.



FIARE
BANCA ÉTICA

ERROEI EUTSIZ, APUSTUA HANDIRA

Euskal Herrian finantza etikoen barruan dagoen ekimenik handiena da, eta oinarri soziala duten proiektuak laguntzeko bokazioa du. Denera 4 milioi eta erdi euroko ekarpena egin duten 450 entitate eta 3.000 pertsona laguntzaile ditu. 2003an eratu zen Euskal Herriko hainbat gizarte erakundek bultzatuta, eta gaur egun, Espainiako Estatuan eta Italian jarduten du, 2013an Banca Popolare Etica italiarrarekin elkartu baitzen.

Koop57 edo Oikocreditek ez bezala, aurrezkiak gizarte ikuspegiko maileguei bideratzeko aukeraz gain, kontu-korronteak eta orotariko txartelak eskaintzen ditu Fiarek. Internet bidez ordainketak eta kontsultak egiteko aukera ere ematen du. Hori guztia egiteko ez dago bazkidea izan beharrik. Bazkideek ordea, baldintza mesedegarriagoak dituzte zerbitzu horietan, eta horrez gain, erabaki garrantzitsuenetan parte hartzeko aukera.



PANTAILA HANDIETARA HELDU DEN KEZKA

Tarteka egiten dute, izarrez jositako Hollywood horretan, kapitalismo neoliberalari maskara erantzi eta den bezain ilun irudikatzen duen film bat edo beste. Zalan-tza pizten digute: ez da izango egia erdia esanda, beste erdia ezkutatzeko saiakera? Ez al zuten egingo txalo eta salmenta onez haragoko erreakziorik piztuko ez dela badakitelako?

Akaso ez dira urrun ibiliko filma ekoizteko sosak jarri dituztenen burutazioak, baina berriki moldatutako gidoi onenari Oscar saria jaso duen *The Big Short*-ek inor gutxi egin duena lortu du: 2008an leher-tutako krisiaren oinarrian dagoen espekulazio jokoa edonork ulertzeko moduan azaltzea. Finantza erakundeek diru gose basatia, erakundeek axolagabekeria... Funtsean, milioika herritarren aurrezki eta zorrak pokerrerrako fitxa bihurtzeak dakarren guztia.

Baina finantza eredu orokorraren azpi-keriak erakusteko ez da super-ekoizpe-netara jo beharrik. Gobernuak kanpoko



'The Big Short' filmean finantza erakundeek especulazio jokoa erakutsi digu oraingoan Hollywoodetik.

hainbat erakundek osatzen duten Setem federazioak *Zure diruarekin* dokumentala egin zuen 2012an. Hainbat adituren iriz-tziak bilduz, ohiko finantza erakundeek

gure diruarekin armagintza eta antzeko sektoreak laguntzen dituztela salatzeaz gain, Espainiako Estatuan martxan dau-den hainbat alternatiba azaltzen ditu.

» **Finantza etikoak** izenaren atzean ez dago ikuspegi etiko bat soilik, badira ohiko finantzen logikatik kanpoko ezaugarriak. Bat nabarmena: zer eta zergatik finantzatzan den

Zerk oztopatzen du bidea?

Honez gero batek baino gehiagok pentsatuko zuen: abantailak horren nabarmenak badira, zergatik ditugu oraindik, gehien-gehienok, gure aurrezkiak ohiko erakundeetan? Edo StopBanque mugimendu frantziarrak eta Eric Cantona futbolari ohiak proposatu moduan, zergatik ez dugu kolpetik diru hori guztia ateratzen?

Zenbakiak erakusten dute halako erabakiak hartu dituztenak gutxi direla: Espainiako Estatuan esaterako gordailuen eta maileguen %90 sei banku handien eskutan dago. 2015eko uztailan banku eta kutxen kontsumitzaileen

elkartek egindako elkarrizketan Joan Ramon Sanchis ekonomialari valentziarrak emandako datuak dira.

Liher Gonzalezek ustetan badu zerikusia gure erosotasunetik atera nahi ez izateak. "Kapitalari nahieran aritzeko bidea egiten diogu, eta orain arteko ereduarekin apurtu nahi badugu, gure ohiturak aldatzen hasi behar dugu". Ezjakintasuna ere arrazoi bat dela dio, jende askok ez baitaki halako finantza tresnak badirenik.

Joan Ramon Sanchisek berak ere ezagutza faltari egotzen dio: "Ezezagutzak konfiantza eza sortzen du, baina 50 urte dira Europar banku etikoak badirela, eta frogatu dute sozialki bezain bideragarriak direla ekonomikoki ere". Horri guztiari beste arrazoi bat gehitzen dio ordea, bulego fisikoek falta. Edozein txokotan ohiko bankuen kutzazainak topatzera ohitu garen honetan, bankuen zerbitzuak eskaintzen dituzten finantza erakunde etikoek txartel edo sare bidez funtzionatzen dute batez ere.

Hori horrela izanda ere, urtez urte gero eta gehiago dira pausoa ematen dutenak. 2008tik 2014ra esaterako, sei-koiztu egin zituzten euren aurrezkiak Espainiako Estatuko banku etikoek. ■

INAKIBEREZIARTUA

ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

Berreskuratutako fabrikak Italian

ZERO ZUZENDARI, ZERO KUTSADURA, ZERO ESPLOTAZIO

2008ko krisi ekonomikoak Europan barrena utzitako ondorio dira kontinente zaharrea berreskuratutako hainbat eta hainbat fabrika. Grezian, Frantzia, Euskal Herria, Espainia eta Italia, besteak beste. Italiako bi fabrika berreskuratuta izan gara: Officine Zero eta Rimaflow.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Martin Mendizabal Garai

@mendigarai

Argentinara emigratutako Luicci Zanon italiar gazteak bere abizena zeraman zeramika fabrika sortu zuen diktadura garaian, Neuquen hirian. Hegoamerikako herrialde hark 2001ean jasan zuen krisi ekonomiko larriaren ondorioz porrot egin zuen ordea, eta bertako langileek berreskuratu zuten: FaSinPat (Patroi-rik gabeko fabrika) izena eman zioten guneari. Egun, enpresako ekoizpenak langileen esku jarraitzen du eta denek soldata bera daukate. FaSinPat eta antzeko lantegiak eredu bihurtu dira Europan, langileen esku geratutako hainbat eta hainbat enpresa aurrera ateratzeko.

Officine Zero Erroman

Erromako Tiburtina tren geltokitik gertu dagoen eraikinean izan gara. Gaueko trenen mantentze lanak egiten zituen RSI fabrikaren behin betiko kiebra 2012ko abenduan izan zen. Orduan 33 langile zeuden lanean. Giuseppe RSIko langilea zen eta fabrika jarraitzen duen lagunetako bat da. Lan baldintzak jada 90eko hamarkadan okertzen hasi zirela esan digu: "Enpresak 1970 eta 1990 urteen artean eskaini zituen lan baldin-

tza onenak. 1992tik aurrera lan moldea aldatu egin zen, guk egiten genuen lan asko azpikontratatzeko hasi ziren".

Elisa Gigliarelli Officine Zero asanbladako kide da, RSIren eraikina 2013ko urtarrilean berreskuratu zenetik. Berak azaldu digunez enpresa langileen eskuetara igaro aurretik langileak instituzioekin hitz egiten aritu ziren, beraien lanpostua mantendu ahal izateko: inbertitzaile berri bat bilatu edota sektore publikoak enpresa erostea ziren langileen esperantza bakarrak, baina saiakerak ez zuen erantzun positiborik izan.

Nolanahi ere, 2013a baino lehenago hainbat kolektibo hasiak zeuden harremanetan: bertako langileek garbi zuten fabrikak ez zuela etorkizunik izango eurak antolatu ezik. RSIko langile ohiak, langile prekarioak batzen zituen CLAPP sindikatu txikiak eta unibertsitateko beste hainbat eragilek bat egin zuten. Sindikatuak *coworking* edo lan kolektiboa egiteko espazio bat okupatu nahi zuten, eta hortik abiatu zen Officine Zero sortzeko ideia.

Hiru urtetik hona, Erromako Officine Zero berreskuratutako fabrika -bere

lema: zero zuzendari, zero kutsadura eta zero esplotazio- antzinako RSIren makinaria erabiltzen dute egunerokoan. Altxariak, mahaiak eta aukiak ere bererabili egiten dituzte konpondu ondoren. Horretan aritzen dira hainbat langile, aroztégia lan egiten duen Giuseppe bera da horietako bat. Horrez gain, tapizeria eta burdindegia ere badituzte, eta lehen administrazioarako bulegoak zeuden tokian, orain arkitektura lanak egiten dituzte. Fabrikak dena lau hektarea inguruko hedadura dauka, jantoki eta guzti.

Officine Zeron errefuxiatu eta langabetuei laguntza eskaintzen zaie. Erromako enplegu zerbitzuek formakuntza zerbitzuak eskaintzen dituzten arren, ez dute ordaintzen. "Guk formakuntza kursoak eskaintzeaz gain, lan bat sortuz gero, irakaskuntza hori jaso duten pertsonengan delegatzen dugu", dio Gigliarelli. Soldatei dagokienez, sartzen den diru guztia kaxa komun batean gordetzen da, eta hilabete bukaeran pertsona bakoitzari bere soldata ordaintzen zaio. Kiebrek ondorioz, momentu honetan eraikinaren jabetza Erromako auzite-





giarena da eta bi milioi euroko enkan-tean dago salgai. Berreskuratutako enpresako kideak instituzioekin harremanetan daude: “Aukerarik egokiena kooperatiba sortzea litzateke –mintzo da Gigliarelli–, horrek bidea asko erraz-tuko liguke”.

Rimaflow Italia iparraldean

Officine Zero ez da Italian berreskuratu-tako lantegi bakarra. 2013ko otsailean, Milan inguruan automobilgintzarako lan egiten zuen Maflow enpresaren lana Poloniara eraman zutenean, enpresa itxi zuten: “Erabaki genuen lantegiak ezin zituela atek itxi eta patroiz gabe eta autogestioan oinarrituz fabrika berriro martxan jarriko genuela”. Egun Rimaflow proiektuaren kide den Gigi Mala-barba ari da hizketan.

Maflow enpresatik kaleratuak izan ziren 15-20 langileak fabrikako azpiegitura eraitsia konpontzen hasi ziren: “Lehen bi urteetan langileen borondatezko lana medio produkzioarako makina-ria konpondu ahal izan genuen”. Den-bora horretan beste fabrika batzuetatik kaleratuak izan ziren 100 langile inguru

batu zitzaizkien eta jende hori guztia etxetresna elektriko, ordenagailu eta altzariak erreuperatzen hasi zen.

Enpresa txikien eta kooperatiba batzuen produktuak saltzen ere hasi ziren: “Denbora horretan herritarren aurrean zilegitasuna irabazi genuen eta ezin izan ziguten politikoki eraso –azaldu du Malabarbak–. Gure jarduera komertziala ilegala omen zen aitzakiapean isun ekonomiko handiak jarri zizkiguten eta produkzioaren zati bat Rimaflowetik kanpo bideratu behar izan genuen. Finantziario nahikorik ez genuenez, lan-tegiko espazio batean autokarabanak aparkatzeko zerbitzua eskaintzea otu zitzaigun, inguruko aparkaleku bat itxi egin zutelako”.

Officine Zero proiektuan bezala, Rimaflowen ere 2001ean Argentinan berreskuratzen hasi ziren fabrikak dituzte zerumugan: “Hegoamerikako zenbait herrialdetan kapitalismoari aurre egiteko alternatiba ekonomiko erreala bat ari dira sortzen, beheko klase sozialetatik hasita”. Horixe bera egin nahi dute Erroman, Milanen, Euskal Herrian eta Europako makina bat txokotan. ■

Goian, Oficine Zeroen instalazioak; aurreko enpresaren makinaria eta altzariak berrerabili dituzte proiektu autogestionatuari ekiteko. Behean, Elisa eta Giuseppe, berreskuratutako fabrikako langile bi.





GARAIZ ZABALETA

Aroztegia Jauregia dagoen lurretan gauzatu nahi du proiektua Aroztegia SM enpresak. 45 hektarea inguru hartuko lituzke Lekarozen.

Aroztegia hirigintza proiektua

NOLA EUTSI EUSKALDUN, 684 BIZTANLE BERRI ETORRIKO BALIRA

Baztango Udalak Aroztegiko proiektuaren Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egin du. Aroztegia Jauregia SM enpresak golf zelaia, hotela eta 228 etxebizitza egin nahi ditu 341 biztanle dituen Lekarozen. Proiektuak euskal hitzun komunitatean ondorio larriak izan ditzakeela aurreikusi du ebaluazioak.



Onintza Irureta Azkune
@oirureta

Aroztegiko Udalez Gaindiko Plan Sektorialean datu oso baliagarriak falta dira eragin linguistikoa ebaluatzeko, enpresak proiektuaz hainbat zehaztapen eman du eta aurreikuspen batzuk egin daitezke, baina Lekarozera etxebizitzak betetzera etorriko lirakeen biztanleak nongoak izan daitezkeen ez du esaten proiektuak. Ez da gauza bera paristarrek eta madrildarrak izatea biztanle berriak edo Lea-Artibaitik, Bortzirietatik

etik eta Urola-Kostatik joatea jendea. Ez da gauza bera aurreikusi nahi badugu Baztango euskal hitzunen komunitatean, euskararen ezagutza eta erabilera, nola eragingo duen jakiteko.

Datu zehatzik ezean, aurreikuspen orokor bat egin du Baztango Udalak UEMArekin (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) batera landu duen Eragin Linguistikoaren Ebaluaketan. Datu lagungarriak ondokoak dira, ale-

gia, proiektuak aurreikusi dituen azpiegitura eta zerbitzuak: golf zelaia, golf praktika zelaia eta golf eskola; lorezaintza eskola; 135 logelako lau izarreko hotela; goi-mailako sukaldaritzako jate-txea; 228 etxebizitza.

Ebaluaketa egiteko, aurreikuspen guztiak beteko lirakeen egoera hartu da kontuan, hau da, 228 etxebizitzak beteko dira, bakoitzean 3 pertsona kontatuta 684 lagun izango lirake eta urte

osoan biziko lirateke Lekarozen. Hortik abiatuta, proiektuak eragin negatiboa, larria eta kritikoa izango luke hizkuntzaren. Bost atal banatu dira ebaluaketan.

Ez da espero inguruko jendea

Lehenengo atalean bizi kalitatea landu dute. Lekarozen joan-etorriak ugalduko dira, aurrera eta atzera ibiliko baitira egoiliarak, oporretan direnak, eta batetik bat golf zelaira joandakoak. Kalitate goreneko turismo eskaintzari lotuta dagoenez, bizi mailak gora egingo du, eta batez ere etxebizitzak garestituko dira. Ez da espero biztanle berriak Baztangoak edo inguruko eskualdetakoak izatea, besteak beste Baztanen bertan badiarelako 860 etxebizitza huts (2001eko errolda). Beraz, oso litekeena da euskara ez jakitea iritsi berriak.

Bigarren atalean proiektuak tokiko negozioetan nola eragingo duen aztertzen da. Biztanle eta bisitari tipologia aldatuko litzateke, beraz eskualdeko dendetara, ostalaritzara eta establezimenduetara gerturatuko den jendea desberdina litzateke. Zerbitzuak erdaluntzen lagun dezakete.

D eredia desegonkortzeko aukera

Azpiegituren atalean osasun zentroak eta ikastetxeak dira azpimarratzekoak. Biztanle berriak egoiliarak balira ikastetxeetan matrikula kopuruak gora egingo luke, eta zein hizkuntzatan matrikulatuko lirateke? Baztan udalerrian 15 herrietatik 11k ikastetxeak dituzte, batzuk irakasle bakarrekoak, alegia, oso haur gutxikoak. Ikastetxe handienak Elizondon daude, Baztango herririk populatuenean (3.543 biztanle), ikastola eta D-IIP (D

"PROIEKTUAK EUSKARAREN ALDEKO LAN KOLEKTIBOA ZAFRATZEA DAKAR"

JOSEBA OTONDO BIKONDOA,
BAZTANGO ALKATEA

Hizkuntza eragina neurtzen duen azterketaren emaitzak eskutan dituzue. Hedatzeko asmorik bala duzue?

Herritarrei ezagutaraziko diegu lana eta gainerako eragileei ere helaraziko diegu, tartean Nafarroako Gobernuari. Aroztegia proiektuaren aurkako argudiotegia sendotzeko elementu bat gehiago da azterketa.



Baztanen euskaraz ondo moldatzen da %75,5 eta hala moduz %13,2. Erabilera berriz, %61,2 da. Ezagutza baino apalagoa da. Euskara kinkan da. Zailtasunak ditugu aitzinerat egiteko eta proiektuak ez du aitzinera egiten lagunduko.

Oraintxe jaso dituzue 2015ean egindako kale erabileraren neurketaren emaitzak. Esan berri duzun moduan %61,2 da erabilera, gora egin du.

Bai, baina euskararen kalitateak kezkatzen nau. Adinez ttipiak direnak kalean entzuten ditut eta, nola esan, haien erranak, haien solasa nola den... erabiltzen dute euskara, baina kalitatezkoa den zalantzan jartzen dut. Hori batetik, eta bestetik, bai, datuak kontent egoteko modukoak dira, nahiz eta oraino egiteko anitz dagoen. Emaitzek aurreikuspenak gainditu dituzte.

Kontent, beraz.

Datuak ez dira ordea hutsetik sortzen, lan kolektibo ikaragarria egin da. Aski da aditza aitaxi-amatxiei eta gurasoei nola bizi izan diren eta zein ahalegin egin behar izan duten euskara mantentzeko. Datuen giblean baztandarren borondatea dago. Proiektuak hori dena zantpatzen du.

B Bilbon
euskaraz




www.bilbaoeuskaraz.eus


www.ikusietaikasi.net

www.harrapazank.com


Hizkuntzen kale erabilera, Baztanen




Euskararen kale erabilera, zonaldeen arabera



Baztandarrei esleitutako hizkuntza-gaitasuna



Hizkuntzen kale erabilera, solas-taldearen osaeraren arabera



Euskararen erabileraren bilakaera, Elizondon

1993	1997	1999	2001	2003	2006	2008	2015
%31,10	%36,70	%34,47	%43,16	%29,83	%39,39	%34,13	%50,6

Goiko lau infografiak Soziolinguistika Klusterrak Baztango Udalarentzat egin berri duen "Baztango hizkuntza-erabileraren kale neurketa"koak dira. 2015eko emaitzak dira. Beheko infografiako datuak berriz, Baztango Udalak emanak dira.

eredua Ingelesezt Ikasteko Programa barne duela) eskola publikoan. Baztango ikastetxeetan D eredua da nagusi, azken urteetan ez da A eredurako eskaerarik izan, eta A ereduko ikasgeletan haur gutxi dira. Baztanera haur berriak etorriko balira murgiltze ereduaren egonkortzea moteltzeko arriskua legoke.

Osasun zentroetan aspalditik ari dira euskarazko zerbitzua jasotzeko borrokan eta ez da aurrerapauso handiegirik eman. Paziente berriak erdaldunak ba-

lira zailagoa litzateke euskal hiztunen eskubideak errespetatzeko bidean aurrera egitea.

Baztanek arnasmune izaten segituko al luke?

Laugarren atalean proiektuak bertako tradizio eta kultura euskaldunean aldatetik eragingo lukeen aztertzen da, hau da, kultur adierazpen eta agendan, gastronomian, ohituretan, kirolean. Ez da zalantzan jartzen eragin negatiboa lukeela. Eta azken atalak dio biztanleriaren

ezaugarri soziolinguistikoetan eragin kritikoa lukeela Aroztegia proiektuak. Hizkuntzaren ikuspegitik biztanleriaren ezaugarriak aldatuko dira, bisitariak, langileak eta egoiliarak helduko baitira.

Eta hasierako hausnarketara itzul gaitzke: nahiz eta biztanle berrien jatorriaren arrasto handirik ez izan, aldrebeskeria al litzateke aurreikus-tea Baztango euskal hiztunen %75,5 horrek behera egingo duela eta erabileran %61,2 mantentzea miraria litzatekeela? ■



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

230 dokumental baino gehiago ikusgai

Zipotzak 30 urte
Egiaren hazia
Desobedientzia, elkartasunetik konpromisora
Azaroak 20, zorigaitzeko eguna
Bide berriak: elikadura burujabetza Euskal Herrian
Behobia-Donostia: 20 kilometro, mila istorio
Kondor Legioa
Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa 1945-2015
Armadillo
40/24 Txiki eta Otaegiren ondarea
Atzoko enborrak, gaurko ezpalak
Goazen gudari danok
Lurra, lana, izana
Batzarre
Ezkutuko amandrea
Arrakala -zirrikutu bat haitzean-
Gerorik ez da
Mugaritz BSO

Jon Salaberri
Eutsi edo hil
Trikiolla
Perretxikoak, basoetako altxorak
Herriaren bihotza
GURS: Euskaldunen infernua 70 urteren ostean
Xabiertxo liburuak 90 urte
Dantzan: erabakitze eskubidearen aldeko lorpen feministak
Hilario Arbelaitz sua eta eskua
Malenkoniaren 3 gelak
Haziak - Herri Unibertsitateen loratzea
Ttipi ttapa
Korrika 1980 - 2007
Gu euskahaldunak gara
SlackLine: Grabitateari Erronka
Baso ahaztuak
Badira bagara

...eta askoz gehiago

**Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:**

multimedia@argia.eus

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

 **ARGIA**



Jan eta jantzi, jaki eta jakintza



Jakoba Errekondo
mandio@zerain.eus

Hartzitutako janariez eta edariez galde-tu zidaten lehengo batean. Ogia, gazta, jogurta, ozpina, sagardoa, ardoa, garagardoa, sauerkrauta (aza samina, *Brassica oleracea Capitata*) eta beste makina bat jaki ontzeko eta iraunarazteko erabiltzen da hartzidura. Guk irakina esaten diogu edarien hartzidurari: sagar muztioak irakin egiten du eta sagardo bihurtu, eta hura, irakinaren irakinez, ozpin bilakatuko da.

Hartzitzen denak, izan landare, fruitu, ale, esne, bizi berri bati ekiten dio. Bakterioak eta legamiak dira batez ere hartzigarriak, bizi berri horretarako gogo-pizten eta akuilatzen dutenak. Zirikatzaille horiek ere bakoitzak bere gus-tuko bizitokiak dituzte. Ez dira nolanahi eta edonon biziko. Tokira, mikroklima-ra, ekosistemara tinko-estuan lotuta-ko bizimodua dute. Tokian tokiko orain oraingoari begira daude, beraiek hartzi dezaketena urrutira gabe badela usain-

du orduko lanerako pronto. Eta emaitza bakarra da, paregabea. Hor bakarrik gertatuko dena. In-guru bakoitzak bere hartzidurak dituela esan daiteke.

Hartzigarria, neurri batean, kutsadura bat da. Sagarrak aza-lean darama, legami desdetxa, eta muztioari erantsiko dio. Ai-reak berak, barrikak... Denek erantsiko dizkiote hartziga-rriak, legamien makro festa; eta horrek egingo du horko sagra-doa bakar, paregabe. Horrexe-gatik hartzitutako jakiak eta edariak kultura kontuak dira. Gure ahosabaia hemen sortutako hartzituetara ohitu da, eta beste nonbaitekora egin ezinik ibiliko da. Hori da kultura, herentzia hori, ondoretasuna.

Thierry Verhelst handiak dio: "Kultu-ra, batez ere, sortzen ari denari zentzua ematea da". Hau da adiera edo esanahia



Ardoa hartzitzen.

WOLLOMBI-CC BY

den zentzua, baina baita norabidea dena ere. Hartzigarriak egiten duena: har-tzitu behar duenari nora eta nola egin behar duen erakutsi. Hartzitua jan edo edan duenak ere igarriko dio zentzu ho-rri. Tokiaren, kulturaren, komunitatearen zentzua.

Izan ere, zentzua ez al da ba jakintzaz janztea? Geure burua janztea? Jan hitze-tik jantzi, eta jaki hitzetik jakintza; ala?

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Gure etxe ondoan zuhaitz guztiei kristoren kimaketa egin diete. Gehienak errepede ondoko platanok izan dira. Azken urte haue-tan noizbehinkako lana izan da, baina zuhaitzek segituan hartzen dute in-darra berriro ere. Oraingo honetan, orde, gertu dugun haritz amerikar erraldoi eta zoragarri bati honako garbiketa egin diote. Zer deritzozu?

Adolfo Masid Balda (Hernani)



Kaixo Adolfo. Zalantza izpirik gabe krimen batez ari gara. Honelako mugarrotzeek ez dute inolako arrazoirik. Zuhai-tza baino gehiago garena sentitzeak soilik justifika deza-ke astakeria hau. Zuhaitzak, noski, erantzun eta aurrera egingo du, baina ez da inoiz zuhaitz bera izango. Egindako

zauri tzar horiek betiko kal-tea sortuko diote, eta enbo-rra usteltzea eragingo dute, zaurietatik hasi eta behe-ko barreneraino. Honelako inausketak zuhaitzari zaion beldurrak eragindakoa dira, ez dago inolako arrazoi tek-nikorik hau egiteko. Etorkizu-nean lehen zena baino askoz ere "arriskitsuagoa" izango da aurrerantzean. Eta norteko haritza (*Quercus rubra*) izanik okerrago, bere egurra ahula baita... Zuhaitz horren bukae-ra hasi da. Goian bego.



*Pagoetako Behorbarroteko
hagina da parkeko zaharrena:
200 urtetik gora ditu.*

INAXIO / EUSKAL-HERRIA.ORG

HAGINA

Gure basoetan bere tokia irabazten



Garazi Zabaleta
@tirikittrann

Aiatik gora eginda laster iristen da Pagoetara. Itsasoa parez pare topatu dugu paisaia berde horretatik. "Hemen paradisuan daude haginak: hezetasun handiko tokian, baina aldi berean kostako tenperatura epeletan", azaldu digu Antxon Gomez parkeko basozainak. Jurasikotik datorren espeziea da hagina. Azken glaziazioaren ondoren (duela 110.000 eta 10.000 urte artean) Europa guztian egondako euriteen ondorioz hagina kontinente osoan zabaldu zen. Klima aldaketarekin, berriz, beste zenbait espezieren aurrean atzera egiten hasi zen, baina gurean prezipitazioak eta hezetasun maila mantendu egin ziren: haginarentzat baldintza ezin hobea. Gizakia artzaintzarako eremuak soiltsen hasi zenean, berriz, mozketek pagoa lagundu eta haritza, hagina eta beste hainbat espezie kaltetu zituzten.

Feudalismoaren akaberan giltzarri

Gizakiak mendeetan haginaren zabal-kundeari egindako kalte nagusia, hala ere, armagintzari lotutakoa izan zen. Erdi Aroan, galestarrek arku berezi bat asmatu zuten haginarekin egina. Ehun Urteko Gerran erabili zuten arku hori,

eta Frantziako nobleziaren %80 bataila bakar batean bidali zuten pikutara: "Feudalismoaren amaieraren hasiera izanzen hura". Hura ikusita, ingelesak hasi ziren arku haiek masiboki erabiltzen, eta Europa guztiko hagin populazioak txikitu zituzten. Espeziea, garai hartan, ez zegoen bere momenturik onenean, eta halako erritmoko mozketek berreskurapena galarazi zioten toki askotan.

Gipuzkoako armarrarian

Joera orokorraren kontra, Pagoetan (Aizarnako eta Hernioko inguruak ere hartzen ditu populazioak) hagina berreskuratze prozesuan dago, eta Penintsulan eta Europa mailan populazio garrantzitsuenetako bat ere bada. Zergatik? 50eko hamarkadan Gipuzkoako Diputazioak Pagoetako finka erosi zuenean, orduko teknikariak, hagina Gipuzkoako armarrarian agertzen zela eta, zeuden piezak ez mozte erabaki zuen. "Beste toki gehienetan moztu egin ziren, edo ganadua ibiltzen zen, zuhaitzaren berreskuratzea zailduz. Toki gutxitan eman dira hemengo baldintzak" dio Gomezek.

"Penintsulako hagin baso gehienetan egona zen talde bat etorri zen duela gutxi bisitan, eta ez zekiten populaziorik handienetakoa etxe alboan zutenik". Bada garaia, beraz, ondare ekologiko hori zabaldu eta Pagoetako nahiz inguruko haginei balioa emateko! ■

BIZI BARATZEA

**Gure kultura
iraultzen ari den liburua**

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

@bizibaratzea



Eskaerak:

943 371 545 · www.argia.eus/denda

Salneurria: 23 €

Harpideentzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIAK

Martxoak 16: Alegia

Institutuan, 10:40an.

Martxoak 17: Segura

Kultur Etxean, 19:00etan.

Ehungarren aurkezpena!

Martxoak 19: Bedarona (Ea)

Jakoba Errekondo bertatik arituko da Euskadi Irratiko Landaberri saioan; ondoren solasaldia. 10:30ean, eskolan.

Martxoak 22: Goiatz

Dendale ostatuan, 19:00etan.

Apirilak 8: Ezkio-Itsaso

Lekua eta ordua zehazteke.

Apirilak 13: Barakaldo

San Bizenteko kultur etxean, 19:00etan.

Apirilak 14: Murgia

Lekua eta ordua zehazteke.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.com

943 371 545

ALT XOR UHARTEA SEMEORDEARENTZAT




Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Braemar (Eskozia), 1881. Ameriketan Fanny Van de Grift Osbournerekin ezkondu ondoren eta handik itzuli berri, Robert Louis Stevenson idazle eskoziarrak udako oporrak sorterrian igaro zituen, emaztearekin eta seme-ala-baordeekin batera. Egun euritsu batean, Lloyd Osbourne semeordearekin marrazten ari zela, 12 urteko mutikoak uharte baten mapa egin zuen akuarelaz. Idazleak ezin izan zion istorioak asmatzeko senari eutsi eta mapako hainbat tokiri izena jartzen hasi zen. Semeordeari esan zion altxor bat zegoela uhartean ezkutatuta, Eskeletoaren Uhartea hainbat sekretu gordetzen zituela, gizon bat hantxe abandonatuta utzi zutela...

Biharamunean Stevensonek *Altxor Uhartea*ren lehen ataleko zirriborroa idatzi zuen. Eta hurrengo bi asteetan, egunero beste atal bat idatzi zuen. Kapitulu bakoitza amaitutakoan, senitar-teko berriei ozen irakurtzen zien eta haiek iruzkinak eta iradokizunak egiten zizkioten; horietako asko behin betiko kontakizunean erantsi zituen.

Beste askotan bezala, osasun ahuleki idazlea gaixotu egin zen Braemarren eta, Londresera itzultzean, aitari erakutsi zion eskuizkribua, hark ere iritzia eman zezan. Aitak iradokita erantsi omen zuen, besteak beste, Jim upelean ezkutatuta dagoen pasarte.



Ezkerrean Robert Louis Stevenson (1850-1894) eta, eskuinean, hark egindako Altxor Uharteko mapa. Jatorrizko mapa, nobelaren sorburu izango zena, Lloyd Osbourne semeordearekin batera marraztu zuen.



BEIDECHE LIBRARY

1881eko urriaren 1ean *Young Folks* aldizkarian argitaratu zen istorioaren lehen kapitulu, eta hamazazpi aste geroago azkena. 1883an nobela lehenengoz osorik argitaratu zen, liburu moduan; Stevensonen lehen arrakasta izan zen, kritikari eta salmentei dagokienez. Eta *Altxor Uhartea* berehala piraten munduaren paradigma bihurtu zen.

Eragin izugarria izan zuen piratez dugun pertzepzioan. Mapetan X-ez markatutako altxorak, uharte tropikalak, sorbalan papagaia duten hanka bakarreko

itsasgizonak, piraten anbiguotasun moralak...

Lloydek berak eskatu omen zion Stevensoni istorioan emakumerik ez sartzeko eta, ondorioz, Jimen ama da nobelaren agertzen den bakarra. Horrenbestez, beste topiko batzuekin batera, piraten mundua gizonezkoena zela uste izan dugu luzaroan, Pretty Peg, Anne Bonney, Mary Reade, Jeanne de Belleville, Madame Ching eta benetako beste emakumezko pirata askok errealitatea oso bestelakoa zela adierazi arren. ■



Nolakoa zen Manhattan 1609an?

Welikia.org webguneak Manhattan uharteko 1609ko mapan nabigatzeko aukera ematen du, New York hiria izan baino lehen irla nolakoa zen jakin ahal izateko. Hala, bertakoek egun etxe edo lantoki duten lekua duela lau mendeko itxurarekin ikus dezakete. Gainerakook hiriko eraikin eta toki ezagunetara jo dezakegu, europarrak iritsi aurretik nolakoak ziren ikusteko. Gainera, garai hartako

fauna eta landarediari buruzko informazio xehea du mapak. Oraingoz Manhattanekoa soilik dago erabilgarri, baina proiektuaren asmoa da Bronx, Queens, Brooklyn eta Staten Islandeko mapak ere eranstea. Egitasmoaren izenak teknologia berrien kutsua izan arren, lurralde haietan hitz egiten zen jatorrizko lenape hizkuntzako hitza da *welikia*; "gure etxe ona" esan nahi du. ■



Joxe Anjel Arbelaiz eta Filipe Bidart Baigorri, emanaldiaren aurretik ARGIA banatzen.

ARGIAREN SUSTAPENA AM KONTZERTUETAN

Irakurlea kolaboratzaile aktibo denean



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Sartu naiz salara, eta kontzertua hasi aurretik nire eserlekua topatzen ari naizela sentsazio berezia: “ARGIAren zenbat irakurle dagoen hemen, ezta?”, badirudi esperoan ez aspertzeko-edo jendeak azken alea ekartzea erabaki duela... Aulki-ilaren artean galduta nabilela gerturatu zait Joxe Anjel Arbelaiz, kontzertuaren antolatzailea, eta nire lekua zein den esatearekin batera banatu dit astekaria. Nire poza! “Hau ere egiten al da?” galdetu diot antolatzaileari.

Berrogei urte daramatza kontzertuak antolatzen, eta beste hainbeste urte daramatza ARGIAren irakurle. Oiarzunen jaioa, familia euskaltzalekoa baina euskaldun alfabetatu gabea, ARGIAk “euskaraz formatzen eta informatzen” lagundu diola esan dit. Garai batean kulturak, euskalgintzak eta politikak tiratuta irakurritako astekaria gaur anitzagoa dela dio, eta beti aurkitzen duela gustuko zerbait. Azken aldaketan ere poz handiz jaso ditu, eta *Times* bezalako mundu mailako hedabide onenen antzeko joerak ikusten dizkiola.

Irakurle fidela, beraz. Baina horietatik antolatzen dituzun kontzertuetan ARGIA banatzera saltoa dago... Harpidetun izan eta urteroko kuota ordaindu baino zerbait gehiago egiteko gogotik sortzen da ideia. Modu aktiboan kolaboratu nahi zuela, eta egoerari erreparatuta euskal prentsan gordeago ikusten zuen ARGIA. Eta beraz, ekuazioa honela da: nik euskaraz sortzen duten artistak taularatzen baditut, kontzertu horietara jende euskalduna etortzen bada, eta helburua ARGIA zabaltzea bada, zergatik ez hasi bertan astekaria banatzen?

Kartelean ARGIA laguntzaile bezala jartzen da, eta gerturatutakoek astekaria jasotzen dute. Garik eta Iñigo Asitzek urtarrilean Bilboko Arriaga antzokian eskainitako kontzertuan 600 ARGIA banatu ziren, otsailean Donibane Lohitzunen egindako Imanol Gogoan emanaldian 400, eta Baigorri antolatutako Bernardo Atxagaren eta Anariren errezitaldian 100dik gora. ■

“ARGIA euskara sustatzen duen medioa da, Euskal Herriko berriak zabaltzen dituena. ARGIA bide argia da. Zorionak hori guztia gugana helarazteagatik! Segi aurrera”

Hernanin, “Trantsizioak”
erakusketan harpidetun batek idatzia



Berrekin programako lagunak, ARGIArekin bisitan

Ekonomia sozial eraldatzailean formatzeko Berrekin programa burutzen dute elkarlanean Bergarako Udala, Lanki, Olaturkoop eta Bagarak. Martxoaren 10ean tour betea egin zuten, ekonomia sozial eraldatzaileko enpresak bisitatu eta esperientziak bertatik bertara ezagutuz: Lakari elikagai jasagarrien dendarekin hasi, ARGIArekin etorri ondoren, eta bertatik Beterri Garapen Agentziara eta Ta Puntu eta Kalakan komunikazio proiektuetara jo zuten.

Hau 2.500. zenbakia da! Hasi kandlei putz egiteko entrenatzen...

Astekari osoko hizkirik txikiena ere irakurtzen duen horietakoa ez bazara, nola jabetu? 2.500. zenbakia duzu eskutan! Badugu ospakizun handiagorik, ordea, begien bistan: 2019an 100 urte beteko ditu euskal prentsak! Izan ere, *Zeruko Argia* 2019an sortu zen. Elkarrekin ospatuko dugula desio dugu.

Petra Bauerrekin solasean

BULTZA DEZAKE IRUDIAK POLITIKA?

Petra Bauer artista eta zinegilea da, eta Estokolmon bizi da. Pasa den azaroan tailerra eta hitzaldia eskaini zituen Tabakaleran, Consonni arte-ekoiztetxeak sustatutako LaPublika ekimenaren barruan: "Emakumeak eta irudiak mugimendu(et)an. Filmak eta argazkiak politikarako tresna gisa". Bauerrekin hitz egin genuen esparru publikoaz, erantzukizunaz, eta Southall Black Sisters emakume-taldearekin egindako *Sisters!* filmaz. *Concreta* aldizkarian argitaratutako elkarrizketaren moldaketa da hau.



Danele Sarriugarte Mochales

@DaneleSM

ARGAZKIAK: TABAKALERA

A Morning Breeze aurkeztu zenuen Veneziako azken Bienalean. Irudien bidez politika negoziatzea, horixe da obraren ardatzetako bat.

Venezian erakutsitako argazki horiek ederki islatzen dute irudiek balio dezaketela politika egiteko eta negoziatzeko. Emakume sozialisten aldizkari suediar batean argitaratu ziren argazkiok, 1905etik 1920ra bitarte. Argazki gehiago etorri ziren gero, baina niri tarte hori interesatzen zitzaidan, zeren eta 1921ean emakume suediarrek esku-bide politikoak lortu zituzten, eta nire jakin-mina zen ea zer egiten duzun estatutaren eta legearen aurrean subjektu politikoa ez zarenean.

Emakume haiek irudiak sortu zituzten. Beren burua erretratatu zuten subjektu kolektibo eta politiko modura. Bestalde, tradizionalak maskulinoztat jotzen diren ekintzetan ikus ditzakegu buru-belarri -irakurtzen, idazten-, eta ondorioz, genero-arauak ere urratu zituzten. Garai hartan eskas ziren emakume intelektualek irudiak. Hortaz, auzitan jarri zuten emakumeen gaitasunei buruzko irudipena, eta argazkiok argi-

taratu ere argitaratu zituztenez, beste emakume batzuegana iritsi ziren. Nire iritziz, oso modu inteligentean erabili zituzten irudiak politikan eragiteko.

Beste zinegile batzuen lana ere ekarri zenuen LaPublika proiektuaren barruan egindako tailerrera.

Bai, adibidez, Avi Mograbi zuzendari israeldarraren filmak erakutsi nituen. Okupazioaren aurka dago, eta kamera hartuta *checkpoint*etara joaten da, baita soldaduak dauden beste hainbat tokitara ere. Kameraren bidez, zenbait egoera probokatzen ditu, botere-harremanak agerian utziz. Kamerari esker lor dezake hori, ikusgarritasunak egiten baititu ageriko harreman politiko horiek.

Palestinarrek egindako filmak ere erakutsi nituen, eta interesgarria da biak alderatzea, haiek ezin baitira soldaduengana hurbildu. Beraz, beste modu batean erabiltzen dute kamera, baina azken batean, helburua bera da: egoera politiko zehatz bat ikusaraztea. Argi dago prozesuaren potentziala dela irudi horiek publiko bilakatu ahal izatea. Soldaduek modu jakin batean ekiten dute

kamerak daudelako. Bestalde, palestinarren kasuan, grabatzen hasten direnean biktima izateari uzten diote, subjektu aktibo bihurtuz. Segurtasun-jaka moduko bat da kamera, eta batzuetan tentsioa baretzen laguntzen du.

Zer-nolako harremana dauka zure obrak esparru publikoarekin?

Galdera erraz-erraza da hori, eta aldi berean izugarri konplikatua. Artea aha-lerin publiko bat da, niretzat bai behintzat. Film bat ez da existitzen harik eta norbaitek ikusi arte. Beraz, zentzu horretan, erantzuna begien bistakoa da.

Gero, hona hemen galdera konplikatua: zertaz ari gara esparru publikoaz ari garenean? Hannah Arendten ekarpenak oso garrantzitsuak dira niretzat, eta berak dio ez dagoela alderik esparru politikoaren eta publikoaren artean. Horrez gain, esaten du espazio bat politikoa izan dadin zenbait baldintza bete behar direla: hasteko, anitza izan behar du, askotariko ikuspuntuak bildu behar ditu; bigarren, ezin aurreikusizkoa eta inter-subjektiboa izan behar du. Esparru bat kontrolatzen edo aurreikusten saiatzen



“Artea ahalegin publiko bat da, niretzat bai behintzat. Film bat ez da existitzen harik eta norbaitek ikusi arte”

bazara, parte politikoa desagertu egiten da. Hortaz, nire filmek aniztasuna dakarte, eta kasurik onenean, aniztasunaren mugak zabaltzen dituzte. Alegia, ikuspegi bat eransten dute, ahots bat, arazo bat, akaso esparru publikoan sekula agertu gabea. Ez dut nire proiektu guztiekin lorzen, baina horretan saiatzen naiz.

Noski, gai eta ahots horiek agertzeko modua ere garrantzitsua da. Artista naizen heinean erantzukizun bat daukat gauzen itxurarekiko, eta uste dut horrek kezkatzen nauela gehien, esparru publikoari lotuta. Noski, ulertuz estetika ere edukiaren parte dela.

Talde-praktikak ere interesatzen zaizkizu, praktika kolaboratiboak.

Jende askok pentsatzen du praktika kolaboratiboak esan nahi duela denek parte hartzea, denek erabiltzea kamera... Oso sinplista iruditzen zait hori, ez da batere ikuskera garaikidea.

Nire metodologiek parte-hartzaileen arteko harremanak azpimarratzen dituzte. Nire iritziz, kolaboratzea da konturatzea, adibidez, guk biok sortzen dugula elkarriketa hau, elkarrekin. Horrek ez du esan nahi biok lan bera egiten dugunik, edo ibilbide edo erabakitze-botere bera daukagunik, baina metodo bat sor dezakegu, bi-bion esperientzia eta gaitasunak baliatzeko, helburu batekin. Hori da kolaboratzea eta hortxe hasten zara negoziatzen.

Ez da langintza erraza, jakina, harremanek gatazka baitakarte, baina kontua ez da tentsiorik gabeko lan-giro bat sortzea, baizik eta lan-giro bat sortzea non gai izango baitzara gainerakoekin harremanak eraiki eta erabakiak negoziatzeko. Hortik abiatuta sortzen dira emaitza kolektiboak.

Eta autorearen auzia?

Noski, alderdi garrantzitsua da hori, baina batzuetan hori baino ez daukagu buruan. Orainxe bertan ez zait hainbeste interesatzen zeinek sinatu duen lana, baizik eta nola ekoiztu den. Ekoizteko tresnek zuzenean eragiten diote ekoizte dezakezunari. Adibidez, *Sisters!* filma sortu ahal izan genuen Southall Black Sisters (SBS) emakume-talde politikoak eta neuk harreman bat geneukalako. Elkarrekiko dependenteak ginen, eta horixe interesatzen zait. Interdependentzia eta zaurgarritasuna kontzeptu garrantzitsuak dira niretzat.



“Iraultzaren estetika gizon-saldoak dira, kalean: irudi apasionatuak. Baina, iraultzaren ueña da hori, 15 bat minutu irauten ditu. Zinezko lan politikoa beste nonbait gertatzen da”

“Ez zait hainbeste interesatzen zeinek sinatu duen lana, baizik eta nola ekoiztu den. Ekoizteko erabilitako tresnek zuzenean eragiten diote ekoizte dezakezunari”

Hala ere, ez dituzu botere-harremanak ukatzen. Nola kudeatzen dituzu?

Bistan da botere-harremanak daudela, baina boterea ez da beti neurea. Haste, uste dut are gehiago problematizatu behar dugula kontua. Baliteke SBS taldekoek ikus-entzunezko artearen testuinguruan agertu nahi ez izatea. Artisten mundua da hori, eta militante politikoei akaso ez zaie hainbeste interesatzen.

Bestalde, interesgarria da erantzukizunaren ikuspegitik erreparatzea gaiari. Film bat estreinatzen dugunean, zeinek hartzen du horren erantzukizuna? Auzia aldatzen da, erabaki baitezakezu zerbaiten erantzule izan ala ez. Kon-

tzeptu hau garatze bidean dago, baina orain egiten ari naizen proiektuan erantzukizuna eta talde-autoretzaren gaiak eztabaidatzen ari gara, filmaren edukia bera eztabaidatu aurretik. *Sisters!* en ez genuen horrela egin, beraz esan daiteke prozesuan ikasi dudala.

***Sisters!* egiterakoan SBS taldearen eguneroko lanari erreparatu zenion bereziki, lan hori ikusezina baita sarri.**

Iraultzaren estetika, ia beti, gizon-saldoak dira, kalean: oso irudi apasionatuak. Baina, egia esan, iraultzaren ueña da hori, alegia, 15 bat minutu irauten ditu. Zinezko lan politikoa beste nonbait gertatzen da. Politikagintzan diharduzu erresistentzia handiz, urte luzeak joan behar dira ezer aldatu aurretik, eta bat-batean hor daukazu iraultzaren ueña... eta gero itzultzen zara eta eguneroko lanari ekin behar diozu berri.

Emakumeek eguneroko horren barruan egiten dute lan politiko asko. Politikagintzaz hitz egitean ez dugu horretan pentsatzen, baina ezinbesteko jarduna da. Nire helburuetako bat zen eguneroko lan hori erakustea, proiektu politiko gisa. *Sisters!* i buruz hitz egitean beti esaten dut iraultzaren aurreko eta ondorengo ueñak direla.

Zer uste duzu errepresentazioaz?

Errepresentazioak ideia bat dakar, hots, norbaiten izenean hitz egin dezakezula, edo gertatu den zerbait errepresentatu dezakezula, gertaera edo ideia bat. Munduaren konplexutasuna murrizten du horrek, eta baita filmen konplexutasuna ere. Ez dut ideia hori sinesten: ezin duzu inoren izenean hitz egin. Filmek zerbait proposatzen dute, zerbait aurkezten edo iradokitzen dute, baina proposamenak ez du mundu historikoaren berri ematen, areago, mundu historikoaren parte da filma bera. Ezberdintasun hori oso garrantzitsua da.

Zer-nolako harremana daukazu zure filmekin estreinatu ondoren?

Hortxe amaitzen da nire lana, filma mundura iritsi ostean ez dagokit eztabaida eta foroetan parte hartzea. Filmak badu bere gorputz propioa. Zentzu horretan, ez daukat ohiko aktibisten inongo antzik. Niretzat, gakoa ez da egoera zehatz bat aldatu edo horretan eragitea, ezpada ahots berri bat txertatzea errealtatearen aniztasunean. ■

ETXEPARE INSTITUTUKO ZUZENDARIEN GASTUAK

100.000 euro inguru gastatu dituzte Etxepare Institutuko bi goi karguek 2014 eta 2015 artean kreditu txartel publikoa erabiliz eta atzerrira egindako bidaietan. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa publikoen gastuak hizpide dira urtariletik Legebiltzarrean eta kultur arloan Aizpea Goenaga buru duen erakundearen zenbakiek deitu dute arreta.



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Soldataz aparte kreditu txartelarekin egindako gastuei bakarrik erreparatuta, Etxepare Institutuko zuzendari Aizpea Goenagak eta erakunde horretako Euskararen Sustapen eta Hedakuntzarako zuzendari Mari Jose Olaziregik 54.000 euro baino gehiago gastatu zituzten 2014 eta 2015 urteetan. Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak otsailean emandako datuak dira, Eusko Legebiltzarrean UPyDko Gorka Maneiro parlamentariak egindako galderei erantzunez. Kopuru horri Etxepareko bi kargu altuenek bidaietan gastatutako 40.000 euroak gehitu behar zaizkie.

2014ko urrian egin zituen gastu handienak Goenagak, 7.225,82 euro hilabete bakarrean. Eskainitako informazioetan ikusten denez, 2015ean bederatzirik hilabeteetan gaintu zuen 1.000 euroko langa-uztailekoa da iazko kopuru handiena, 3.641,95 euro; bi urteetako kontuen baturak 35.882 euroko emaitza ematen du. Olaziregiren kasuan, hirutan gaintu zituen hiru zeroak 2014an eta bost aldiz iaz, guztira 18.000 eurotik gora bi urtean.



Aizpea Goenaga Etxepare Institutuko zuzendaria 2012ko argazki batean.

IREKIA.EUSKADI.EUS

EAEko zuzenbide pribatuko erakunde publikoek 2014-2015 artean plastikozko diruarekin egindako gastuen podiumetik gertu geratu da zenbaki horiekin Etxepare. Neiker-Tecnalia edo Sprilurren gaintetik dago eta Basquetour (108.670), Euskotren (102.077) eta SPRI (80.707) besterik ez ditu aurretik, otsailaren 25ean *El Correo* egunkariak argitaratu zuen taulako zenbakiak konparatuz gero.

54 bidai 18 hilabeteen

Bidaietan gastatutakoari dagokionez, 18 hilabeteen ordaindutako hegaldi, hotel, aseguru eta alokatutako autoak hartu dira kontuan. Urtarrilean eman zituzten horien inguruko argibideak Legebiltzarrean Maneiroren beste eskaera bati erantzunez.

Orduan jakin zen Goenaga urte eta erdian 11 herrialdetan izan dela -AEB, Islandia edo Brasil daude bisitatutako lekuen artean-. 2014ko otsailean Goenagak eta Olaziregik zazpi bidai egin zituzten 28 egunetan. Urte bereko apirilean eta urrian ere zenbaki hori berdina

» Hilabete bakarrean 7.000 euro baino gehiago gastatu zituen Goenagak Etxepareko txartelarekin

du zuten. Hilabete horretan egiten dituzten gastu handienak hain zuzen Etxepareren kreditu txartelak, Goenagaren 7.000 eurotik gorako fakturari Olaziregiren ia 3.000koa gehitu behar baitzaio.

2015eko lehen erdian apur bat gutxitu zen Etxepareko buruen bidaiaren erritmoa: lau aldiz irten ziren urtarrean eta otsailean, sei aldiz martxoan, hirutan apirilean, seitan maiatzetan eta hiru bider ekainean. Iazko azken sei hilabeteetan hartutako hegaldien berririk ez dago Legebiltzarrean emandako informazioan, beraz bidaiak gastuak momentuz ezagutzen direnak baino handiagoak izan daitezke. ■

Hollywoodek ez ditu emakume kirolariak atsegin

Kirolak gizartean duen pisuaren isla, zinemaren baitan ia genero bihurtzeraino ugaritu dira ariketa fisikoa oinarri duten filmak. Norbere burua gainditzeko ahaleginez edo talde-epikaz betetako istorioak dira, baina... nortzuk dira protagonistak? Non daude emakumeak?



Gaizka Izagirre

@Gaizka_Izagirre

Emakumearen irudia eta presentzia zinemarekin lotzen ditugun bakoitzean, lotsarazteko moduko datuak aurkitzen ditugu. *Emakumeak telesail nordikoe-tan* artikuluan (ARGIAren 2.480 zenbakia) aipatu bezala, orain hilabete batzuk New Yorkeko Film Akademiak publikatutako *Genero berdintasunik eza zinemari* izenburuko txostenean emakumezko rola aztertu zituen zinemaren barruan, 2007tik 2012ra bitartean diru gehien bildu duten Hollywoodeko 500 filmetan oinarrituta. Txostenean irakur daiteke testua duten rol guztien %30,8 besterik ez direla emakumeentzat eta horien artean %15 baino ez direla protagonistak. Datu horiek larriak eta lotsagarriak direla pentsatzen baduzue, atzekoz aurrera eroriko zarete, emakumeek egindako kirola zinemari nola tratatu duten ikusten duzuenean. Tira, tratatu, tratatu... gehiegi esatea litzateke, zazpigarren artearen ustez, existitu ere ez delako egiten.

“Baina arazo berbera komunikabideetan ere ageri da”, pentsatuko duzue. Jakina, *2013-2014 Emakumezkoen kirolaren presentzia eta tratamendua Euskal Herriko prentsa orokorrean eta kirol arloko egunkarietan* txosteneko datuei erreparatuz adibidez, kontuan hartu diren 15.316 berrietatik 14.006, %91,4, gizonezkoen kirolari buruzkoak dira; emakumezkoen kirolari buruzkoak aldiz, 760 bakarrik (%4,96). Emakumezkoen kirolari buruzko hiru berrietatik batek bakarrik eskaintzen du mintzagai duten emakumezko kirolariaren irudia. Aztertutako aldian, egunkariaren azalean agertutako 632 berrietatik 26 izan dira emakumeei buruzkoak, %4,11 alegia. Baina horrek ez luke zertan filmaren sorreren prozesuan eragin behar. Independenteki funtzionatu beharko luke eta mahai gainean kolpe bat emanez emakumeen presentzia kirolean goraipatu, komunikabideetan gertatzen denetik aldentuz. Imajinatuko duzuen bezala,

errealitatea, tamalez, oso bestelakoa da. Gaur egun ere matxista izaten jarraitzen duen zazpigarren arteak nola erretratu duen hau guztia? Oso modu petralean.

Belaunaldi edo garai kontuak diren ala ez jakiteko, 75 urteko diferentzia duten bi adibide aztertzen saiatu naiz, ondoren tarteko guztia ulertzen saiatzeko. Alde batetik, 1998-2002 urteen artean Ingalaterran emititu zuten *Playing the Field* telesaila: emakumeen futbol talde baten egunerokoa kontatzen duen istorio honek hainbat izendapen jaso zituen BAFTA sarietan, telesail dramatiko onenaren arloan; ikusle eta kritikaren txaloak lortzeaz gain, “hesi ikusezina” haustea lortu zuen.

Bestetik, zinema klasikoak beste ikuspegi bat eskaintzen ote duen jakiteko, 1927 urteko *The Fair Co-Ed* hartuko dugu: sinopsiak dio “oso neska ausarta denez, Marion Bright (Marion Davies), edozer egiteko prest dago bere helburua lortzeko. Bob da helburu horren

Hillary Swank protagonista duen 'Million dollar baby' da salbuespenetako bat, baina oro har, zinemak emakumeek egindako kirolari arretea eskasa eskaini dio.



izena. Hura konkistatzeko, unibertsitate berdinerara joan eta bera entrenatzaile den saskibaloitako taldeko onena izaten saiatuko da". Lotsagarria, ezta? Istorio hori emakume kirolari bat protagonista duen lehen filma dela esan daiteke. Bi adibide hauen artean dagoen guztia aldiz, espero bezala, negargarria. Zinema klasikoak emakumeen irudia modu lotsagarrian islatu baitu gehienetan.

Baina kirola-zinema-emakumea uztartzen dituen datu edo estatistika zehatzik existitzen ez denez, eta itsu-itsuan ez ibiltzearen, proba txiki bat egin dugu. Sar zaitezte www.filmaffinity.com webgunera –IMDB-rekin batera interneten dagoen filmetan buruzko datu-baserik handienetakoa– eta saiatu kirola gai nagusi duten filmak zerrenda bilatzen. 1.636 izenburu ageri dira. Bigarren postuan Clint Eastwooden *Million dollar baby*. Hillary Swank protagonista duela, emakume boxeolari bati buruzko film zoragarria. Hortik aurrera,

kilker soinuak. Animatzaile eta nerabeentzat zuzenduriko institutuko filmak kaxkarrak alde batera utzita, %10ean bakarrik ageri dira emakume kirolariak. Baldintza hau betetzen duten film eskas horietako emakumeak, gainera, gizonetako bat lagun dutela agertzen dira ia beti. Eta fintasuna eta tuntuna bezalako ezaugarriak itsatsita dituztela. *Bechdel test* ezagunean –filmetan, komikietan, antzezlanetan eta beste kultura-produktuetan genero-desparekotasuna neurtzeko sistema da– laugarren puntu bat gehituko nuke: emakumea azaltzeaz gain, errealitatearekin kontaktuan dauden benetako ezaugarriak ere erakustea. Azken urteetako salbuespen nabarmenenak izan litezke *Like Beckham*, *A League of their own*, *Soul surfer*, *Whip It*, aipaturiko *Million dollar baby* edota, xakea kirol bezala hartuz gero, aurten estreinatuko den *Queen of Katwe* –Mira Nair zuzendariaren azken filma, Phiona Mutesiren bizitzan oinarritua–.

Egia da, Hollywood klasikoarekin alderatuz irudia garatzen joan egin dela, baina funtsean, joera penagarri hau ez da batere aldatu. Zinemaren eragina oso handia da gaur egungo gizartean eta kirol femeninoari istorio gehiago eskainiko balitzaizkio, gizartearen pentsaera aldatzen joango litzateke. Eta batez ere, emakumearen benetako irudia islatuz eta kontzepzio ez sexista zabalduz, baliteke komunikabideetan ere presentzia handitzea. Edo komunikabideek eman beharko lukete lehen urratsa, ondoren zinemak istorio horiek jorratzeko? Bata ala bestea izan, mentalitate aldaketa behar dugu gizarteko arlo guztietan. Mikel Garciak bere blogeko *Telesaitetan gizona ere biluztu dadila eta orgasmo unean enfoka dezatela* artikuluan idatzi zuen bezala: "Tabuak, moralkeria, faktore komertzialak eta matxismoa, gaur egun oraindik nagusi den koktel arriskutsua, inondik inora". ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Mailu bat



Igor Estankona



Hau ez da poesia

UNAI MALESKI

Poesia. Elkar, 2016

Paperaren krisiari paperean erantzuten dion liburu harrigarri bat. Unai Maleskiren (Unai Abarzuza, Iruñea 1972) *Hau ez da poesia* irakur daiteke ikuspuntu estetikitik, irakur daiteke esanahiari begira, irakur daiteke, besterik ez bada, nabaritzeko bere erregistro aberastasuna, bere irudi inflazio ederra: "Poema bat ezabatu dut./ Bere hitz guztiak eta baita/ letren arteko tarteak ere./ Kultismoz beteta zetorren,/ esamolde jatorrak,/ erreferentziak, zitak./ Borratu egin dut./ Izana ukatu diot delete tekla/ bortizki sakatuz, erruki gabe./ Figurazio erretorikoa,/ sasiintelektualkeria,/ posea ez beste, egozikina./ Ezabatu egin dut poema,/ lotsak masailak gorritu/ eta fi te jelatu bitartean./ Poesiaren xedeaz/ eta izateko arrazoiaz/ hausnartzeko zorian/ aurkitu al zarete inoiz?// Ni bai, hurbilegi, gainera./ Baina, zorionez,/ hau ez da poesia". Beraz liburua bera ukatuz hasi da Maleski, ohartaraziz hemen irakurleak aurkituko duena ez dela konbentzionala.

Edo agian poesia mailu bat dela esan-go lukete *arestitarrek*, Maleskiren kezka ez baita literaturaren gainekoa bakarrik, literatura pentsamendurako bide bihurtzen baitu batez ere, euskalduntasunaz, denboraz, maitasunaz hitz egiteko: "Zuntz optikoak konektatu gaitu/ baina maitasun hitzak/ bellarri ditugu nahiago./ Komunikazioaren aroa erosi dugu,/ baina zerumugara begiratu behar/ gure buruak dioskuna aditzeko".

Zentzu horretan, poesiak ematen dio halako patxada bat sare sozialek zein bere kreatibo lanak ematen ez diotena. Dena dela, igartzen zaio biak -twitter eta publizitatea-

direla bere bizitzaren parte: berehalakoa da uneka *Hau ez da poesia*, txio baten gisakoa, eta bestalde mezua zelan helarazi, kezka nagusi horixe du uneoro.

Konbinazio horretatik sortzen ditu poemak baita, haikuak bezain iradokitzaile, irudi moderno eta era beran betikoak: "Nire etxe azpiko munipak/ talde-erretratuak egiten dizkie/ japoniar teenager-ei./ Nokia batekin". Zentzu horretan, "Abertzaletasunaren abantailak I" eta "Abertzaletasunaren abantailak II" jenialtasun hutsa iruditu zaizkit. Eta ez dira liburuko bakarrak. *Hau ez da poesia* freskoa da, eta sakona. Eta arina ere bai, friboloa, entretenigarria. Ezer txarrik ez dauka horrek, kontrara, aspaldi irakurri gabea nintzen poemategi bat horrelakoa, Mikel Zarateren higidura berde baten antzekoa, ukitu mingots bat daukana azken-azken tragoan, konturatu barik bihurtzen dena gure garai hauen laburpen. ■

Unai Abarzuza da Unai Maleski poeta,
Xabier Mendiguren Elizegi editorearen eskuinean.



» TELEGRAMA


Los Angelesetik (AEB) zuzen-zuzenean Donostiako Mogambo aretora iritsiko da martxoaren 18an **Bestial Mouths** industrial electro-goth musika egiten duen taldea *STOP* Tartean Teatroaren **Zergatik, Jamil?** ikusteko parada izango da Santurtzin martxoaren 17an: Mikel Martinez eta Eneko Sagardoy ditu protagonista hilketa ulergaitz batekin hasten den obra honek *STOP Hitz adina mintzo*, hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloak Gaskoierari eskainiko dio arreta martxoaren 17an. Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean da zita 19:00etan *STOP*

» DISKOA

Beste ikuspegi bat



Joxi Ubeda



Kaiolatik ihes

ERASO!

Bonberenea Ekintzak, 2016

Zarauzko Eraso! taldearen ibilbidea aldakorra izan da, taldeak hainbat gorabehera izan ditu. *Kaiolatik ihes* haien seigarren disko luzea da, eta mugarria izango da taldea izaten ari den bilakaeran. Ibilbide baten amaiera baino gehiago, hasiera.

Aurretik rock gogorra jo izan dute, eta disko berriak erakusten duenez haien doinuak jadanik ez dira hain bortitzak, apur bat finagoak dira, baina kemen eta grina handiz jotzen dute, beti bezala. Azken batean, eta nahiz eta zenbait kantuk rock gogor ukitua izan, beren rock gogorraren kaiolatik atera dira, beste ikuspegi bati erreparatzeko, beste aire bat arnasteko.

da ezer gertatzen), "atzera begiratzen baduzu eta gauean negar egiten baduzu ez dituzu izarrak ikusiko" (*Gazte izan nintzen*), "bizirik irauteko programaturik gaude eta gidoi gabeko film baten protagonista izan nahi dut" (*Kaiolatik ihes*).

Eraso! taldeko kideak –Sergio Ruiz Gonzalez-Txabarri, Iñigo Beitia Mantrola, Ibai Castro Azpiri eta eta Nestor Urdanpilleta Egaña– eta Karlos Osinaga arduratu dira ekoizpenaz; Osinagak berak egin ditu grabazioa eta nahasketak Tolosako Bonberenea estudioan, eta Jonnan Ordorikak masterizazioa Azkarateko Mamia estudioan. Denen artean doinu trinkoa gauzatu dute, potoloa, ozen entzuteko modukoa.

Taldeak 20 urte bete ditu eta denbora honetan hainbat grabazio kaleratu ditu. *Guztiaren arabera* (1996) eta *Gaua* (1997) maketak, eta disko hauek: *Eran-tzunik gabe* (1999), *Oraina eta geroa* (2001), *Grisez bustitako egunak* (2003), *Kontra* (2005), *Ez gara inoiz hilko* (2012) eta *Kaiolatik ihes* (2016).

Lan berria aurkezteko egingo dituzten jendaurreko emanaldiak ikusgarriak izango dira. Martxoaren 19an Tolosako Bonberenean joko dute, martxoaren 23an Donostiako Gasteszenan, apirilaren 7an Bilboko Kafe Antzokian, apirilaren 23an Iruñean, apirilaren 30ean Zarauzko Putzuzulon, ekainaren 3an Oñatiko Gaztelekuan eta ekainaren 11n Hondarribiko Psilocybenean. ■



Ardatza, gordina

EMANALDIA

Borja Estankonaren kontzertua.
Parral tabernan, otsailaren 16an, 20:30ean
GEU elkarteak antolatuta.



Jon Aranburu Artano

@jonaranburus

Duela ez urte asko, irudipena nuen Gas-teizko soinu moduko bat bazela. Entzuten nituen Exhale eta Avenue, edota Same Old, eta gutxienez, entsaio lokal berean aritzen zirela ematen zuen. Gerora etorriko zen Erizo, eta antzekotasunak topatzen nizkion. Orain, Viva Bazooka entzun, eta oraindik lotuneak ikusten ditut. Eta Estankona gasteiztarra balitz, esango nuke lau pareta horien artean sortzen duenetakoa dela.

Baina ez, arratiarra izatez, Bilbotik etorri zitzaigun Borja Estankona bere hirugarren lana, *Ardatza* izenekoa, aurkeztera, GEU elkarteak gonbidatuta. Hirugarren lana, bai, baina oihartzun handirik gabekoak hirurak ere. Pena, ze proposamen interesgarria izaten jarraitzen du lehenago, besteak beste, Areak taldean ibilitako Borja Estankonaren bakarkako proiektuak. Azken lan hone-tan, aurreko bietatik urruntze bat dago, talde lan handiagoa dagoen irudipena daukat, eta honetan taldekideak aldatu

izanak eragingo zuelakoan nago. Lehenagoko Jimmy Arrabit eta Itsaso Etxe-beste, Koldo de Miguel eta Iñaki Alonsok ordezkatu dituzte baterian eta baxuan. Zuzenean, gainera, bateria jolea hirugarren bat da, Rafa Bataglia aritu baitzen Parralen (datozen emanaldietan bera ariko den, ezin jakin).

Eta diskoan nabari bada aldea aurreko *Fruitua* eta *Estankona* lanetatik, zuzenean areagotzen da. Soinua (are) gordinagoa da, eta rock izaera nabarmenagoa dute kantuek. Parte batzuetan berebiziko intentsitatea hartzen du hirukoteak. Normala ere bada, eta eskertzekoa ere bai. Ze, zertarako nahi dugu zuzenean diskoaren erreproduktzio soil-a entzun?

Estankonaren kantuen bereizgarriren bat aipatze aldera, ez-ohiko akorde sekuentziak nabarmenduko nituzke. Borjak berak esanda, disko honetan Grezia eta Ekialde Hurbileko herri musikei zabaldu dizkie ateak. Neuk, aitortuko

dut, berak aipatu arte ez nuela halakorik nabaritu, baina geroko entzunaldietan, diskoa ixten duen, eta kurioski kontzertua zabaltzeko jo zuen, *Bagoaz* kantuek ekialdeko kutsu nabarmena du, baita *Bilera* kantu indartsuak ere.

Gehienak kantatuak badira ere, biz-pahiru kantu instrumental ere jotzen ditu, zeinetan intentsitatea areagotzen den, zenbaitetan Shellac-en, edota Inoren Ero Ni-ren oihartzunak hartzeraino, diferentziak diferentzia: Soinu latza, harmonia ezohikoak, erritmo gogorak, baxu, gitarra eta bateriaren bolumen parekatua (inor ez inoren gaitetik).

Power trio indartsu bat taulagainean, soberan ezer izan gabe, piroteknari-rik gabe, ez argi joku ikusgarri, ez gitarra soinu berezi, ez solo luzerik: hiru lagun, baxua, bateria eta gitarrajole kantaria. Rock bandarik biluziena bezala, kantueganako konfidantza dagoenaren seinale. ■



DOS POR DOS

Hitz gezidunak

PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA ----- EUSKARRIA, SOSTENGUA	↓	PRAKA- GORRIAK ----- BROMOA	↓	AHUNTZA- REN AR		DANI BLANCO	KULUNKA ----- ZERBAIT NAHI EZ IZATEA	↓	IKUSKIZUN DIBERTI- GARRI ----- LANDAREA HOSTOZ BETE	↓	GAINALDEA ----- EDARIA	↓	
ASIAGO ESTATUA ----- BEGIRADA	→					PERTSO- NAIAREN ABIZENA ----- EGITEKO, ZAILTASUN	→						
	↓	LETRA IZENA ----- ANGELUA OSATZEN DUENA	→		PARKE ZOOLOGIKO ----- NAFARROAKO HERRIA	↓	EUSKO- KOORDE- NATUETAKO BAT	↓					
AKATSAK ----- BANEUKA	→	↓			↓		↓		KARTA JOKO ----- ESTATU BATUETAKO ESTATUA	→			
				BOKATA, LIXIBA ----- PERTSO- NAIAREN IZENA	→				↓		ERITREAKO DOMEINUA ----- BOBORKA	→	
ATOMO ZATIKI	ARLOA ----- INTSEKTUEN ENBRIOA	→		↓		NERBIO ZIATIKOAREN HAUSTURA ----- ZAPI, EHUN	→				↓		
	↓					↓			SEI KARRATUKO POLIEDRO ----- SUDURRETIK DARIONA	→		ABARASKA	
ALUMINIOA ----- GIPUZKOAKO UDALERRIA	→		MUSULMA- NEN ADARRA ----- LETRA ERREPIKATUA	→					↓	BOKAL ERREPIKATUA ----- ...VICIOUS, PUNK MUSIKARIA	→	↓	
			↓		APURTU ----- BIZKAIKO HERRIA	→				↓		BYTE ----- DAUKA (AL- DERANTZIZ)	→
IRRIA ----- ASTINALDI	→			↓		EUSKAL JAKA TIPIKOA ----- 500	→				↓		
						↓			PARTXISEAN, BOTATZEN DEN PIEZA	→			

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako
zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko
koadro bakoitzean errepikatu gabe.

		1	3	6		2		
						6	4	
	8			5	4			3
			8	9		4		
	3						9	
		4		2	7			
8			9	4			5	
	9	2						
		6		8	5	9		

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Zikin, lohi.
2. Beharbada.
3. Ugaztun basati.
4. Arrantzarako tresna.
5. Garaiak, aldiak.

Soluzioak

Soluzioak

5. Uneak.

3. Tigire, 4. Sarea.

1. Satzu, 2. Agian.

5x5:

H	A	R	O	A	L	D	I		D	A	O	
	B	A	R	E	A		K	A	I	K	U	A
I	R	U	R	A		H	A	U	T	S	I	B
A	L	X	I	I	S	M	O		A	A		A
E	L	E	K	T	R	O	I	K	U	B	O	
	G	A	I	A		Z	I	A	T	I	K	A
B	A	N	U	R	I	G	O	B	A	D	A	E
N	A	R	I	O	A	K		T	U	T	E	R
S	O	B	E		Z		E	U	S	K	A	L
	I	R	A	K				B	O	R	D	A
H	A	B	E	A		N	A	H	I	E	Z	
	B		D			Z		Z				A

3	4	6	7	8	5	9	2	1
5	9	2	6	3	1	8	7	4
8	1	7	9	4	2	3	5	6
9	6	4	5	2	7	1	3	8
7	3	8	4	1	6	5	9	2
1	2	5	8	9	3	4	6	7
6	5	3	1	7	8	6	4	9
2	8	9	2	5	4	7	1	3
4	7	1	3	6	9	2	8	5

Mercedes Álvarez. Zinema militantea aldarrikatzen



Soriako Aldealseñor herrian jaio zen. Zinema dokumentala egiteari ekin zionean ez zuen zalantzarik izan, jaioterrira itzuli zen eta sari ugari emango zion *El cielo gira* pelikula egin zuen. Bere ustetan, zinema dokumentala historiaren museo bat da. Memoriari galderak egitea. Norberaren begietatik inguruari galdetzea. Hausnarketa politikoa egiteko modu bat. Artea, zerbait izatekotan, arauaren salbuespena delako zinemagile honen ustez.

“Inoiz baino zailagoa da gaur egun irudiak mintza daitezen leku bat aurkitzea”



Arantza Santesteban

@a_santesteban

ARGAZKIAK: RODRIGO PEREZ

Araua hautsi

“Une honetan *Cinema en curs* programan nabil zinegile, Bartzelonan, irakasle batekin lan egiten eskuz esku. Helburua da eskolan arteak –zineak kasu honetan– arau soziala urratzeko duen gaitasuna erakustea. Funtsezkoa da araua haustea gizarte ganorabakoa eraiki nahi ez badugu.

Mercado de futuros filma egin genuenean, memoriak espazioarekin duen loturaz hitz egin nahi genuen. Guretzat inportantea zen hori azpimarratzea. Gentrifikazio prozesuek auzoetako ehun soziala apurtzen dute, eta hori gertatzen denean, memoria kolektiboa hausten da ezinbestean”.

Galdera saihestezina da niretzat: zer da zinema dokumentala zure ustetan?

Askok uste dute zinema dokumentala kamera zerbaiten aurrean jartzea baino ez dela. Ni ez nago batere ados ikuspegi horrekin. Zinearen oinarria ezagutu besterik ez da egin behar, historian zehar dokumentalista gehienek obsesioa izan dena aztertzeko: kameraren on botoia sakatzea baino, norberaren begirada da benetan garrantzia duena. Autore horiek ezinbesteko galderak egin dituzte auzi honen inguruan, nola begiratu, zer begiratu eta zergatik. Horrek guztiak formaren inguruan hausnartzea eskatzen du, horregatik pentsatzen dut dokumentalistak formaren inguruko ikerlari handiak direla.

Alegia, kontatu nahi den hori nola kontatu da dokumentalaren funtsa.

Hala da. Dokumentala beti da edozein gairen inguruko ikuspuntu bat. Begirada posible guztien narrazio posibleak egitea da dokumentalistaren lana. Ez da objektibotasunik behar, dokumenta-

la, hain zuzen ere, begirada subjektibo hori irudien bidez eraikitzea baita. Horregatik sortu da hainbeste zine eredu: saiakera zinema, hausnarketa zinema, egunerokotasunaren zinema, zinema esperimentalak. Zentzu horretan, gaur egun aztarna uzten duten filmak, zaharkitzen ez direnak, formaren inguruan pentsatuta daudenak dira.

Forma da guztia, orduan?

Nire ustez pelikula batez ari garenean dena da forma. Gauzak nola kontatzen diren da forma. Norberak hartzen dituen formari buruzko erabakiak ikerketa eta bilaketa prozesuarekin lotura zuzena dute; hausnarketa hauek guztiak ez dira doakoak, eta batez ere ez dauka aurrez finkatuta. Formaz pentsatzea edukiaz pentsatzea da.

Zinema militantearen premiaz hitz egin duzu askotan. Zergatik da garrantzitsua? Zinema militantea beti izango da beharrezkoa; halere, niretzat garrantzi handiagoa du zinegile baten ibilbidean



"Irudiak ez dira errugabeak, historiaren barruan daude, eta boterearen erretorikarekin amaitzeko beharrezkoa da lengoaiaren iraultza egitea, hau da, formaren iraultza egitea".

jarrera militante iraunkorra izateak. Kontua ez da zure filmografian eduki sozial edo politikoa duen piezaren bat egitea, kontua da jarrera arduratsu bat eraikitzea, zure jardueran zentralitatea izango duena. Horrek guztiak norberaren kode etikoa eraikitzea eskatzen du, egin nahi ez duzun hori ez egiteko, erretorikoa izateari uzteko eta egiten duzuna estereotipotik abiatuta ez egiteko. Era berean uste dut, urgentziazkoa den hori planteatzeaz gain, beharrezkoa zer den planteatu behar dugula. Jarrera moral batez ari naiz: zinemagileak irudiek duten botereaz ohartu zirenean gauzak beste era batean kontatu behar zirela ohartu ziren.

Hori guztia islatzen duen erreferentziarik?

Chris Marker izan da zentzu horretan irudiak duen boterearen inguruan hausnarketa handiena egin duen zinegilea; errebelaziorako duten ahalmena, baita edozer faltsutzekoa ere. Eta jakina, manipulaziorako duten gaitasuna ezin da

ahaztu. Boterea dutenek irudiak horrela erabiltzeko duten moduari aurre egin nahi badiogu, ezin dugu haiek erabiltzen duten forma berbera errepikatu. Irudiak ez dira errugabeak, historiaren barruan daude, eta boterearen erretorikarekin amaitzeko beharrezkoa da lengoaiaren iraultza egitea, alegia, formaren iraultza egitea.

Irudien saturazioak bizi gaitu. Gaur egun oraindik irudia al da istorioak kontatzeko manera?

Egia da, inoiz baino zailagoa da gaur egun irudiak mintza daitezen leku bat aurkitzea, batez ere aipatzen duzun saturazio hori dela eta. Zer egin daiteke hainbesteko "zarata" tartean dugula? Nik uste dut inportanteena okupatu gabeko ikuspuntuak aurkitzea dela, hedabide konbentzionalek erabiltzen dituzten erregistro-formula estandarizatu eta formateatuak saihesteko. Zinegilea, fikzioan zein zinema "errealean", historia bakoitza kontatzeko ikuspuntu baten bila dabil. Ikusleok proposamen

horren aurrean gaudenean sumatzen dugu aberasten garela, irudien erabileraz ezberdin baten bidez hitz egiten digun horrek "egia" ezberdin bat kontatzen digula. Begirada berri bat proposatzen zaigula ziurrenik mila aldiz kontatua izan den gertakizun baten inguruan.

Zuretzat, zinea memoria ariketa bat egitea da. Zergatik?

Nire bi pelikulek memoriarekin harreman zuzena dute. Bestalde, nire ustez, zinemaren historian beti izan da horrela, izan fikzioa edo dokumentala, beti izan du dokumentu bilakatzearen ahalmena. 1920ko hamarkadako pelikula bat ikusten dugunean, adibidez, kontatzen duen historiaz gain, garai-ko giroa azaltzeko dokumentu ezin hobia dugu, alegia, memoria bizi bat dugu. Gainera, zinea garai bakoitzeko historiaren museoa da, lokalizazio bakoitzarena, giza-harremanena, hizkuntzarena... Eta batez ere, zinema dokumentala. ■



Jendaurreko masajea Urkullu lehendakariari, txalo eta biba artean

Iñigo Urkullu EAEko lehendakaria ez omen da oraindik guztiz osatu joan den asteen ETBn jasan zuen zortzi eskuko masajeaz. “Zer nahi duzue, holako gauzek beti uzten naute apur bat minduta, klabikula aldean eta...”, esan du txioak idazten dizkionak. Bestalde, Urkulluren saihesten artean kili-kili egiten ibili ziren lau kazetariak EAJtik hurbilxkoak ez ote diren iradoki duten kritika bidegabeak ukatu ditu ETBk: “Pluraltasuna bermatzen saiatu gara, horregatik lau ekarri ditugu bakarra beharrean”.

Masajearekin batera egindako galderen zorrozetasunak zeresan ugari sortu du, baita nazioartean ikusmina piztu ere. CIAko telefono guztiak dantzan jarri ziren Urkulluk gau hartan Gasteizen lo egingo zuela eta zen laster aitita izango zela esan zuenean. Diotenez, lanak izan zituzten Obama botoi gorria ez zapaltzeaz konbentzitzeko.



Zatiketa burutzeko arriskua ezker abertzalean: hizkera txosteneroaren aldekoak eta aurkakoak muturtuta

Ezker abertzalean hizkera txosteneroa baztertzeko proposatu zuen Gotzon Elizburuk joan den ostiraleko *Garan* eta hautsak harrotu ditu, BERANDUEGI n jaso dugun komunikatu anonimoak erakusten duenez: “Aldebakartasunetik egindako adierazpen horren aurrean Euskal Herriari adierazi nahi diogu baldintza politikoak eta sozialak irmotasunez bermatu behar ditugula hizkera-eszenario berri bat eraikitzen hasi aurretik, afera hori egikaritzeko ezinbestekoa delarik bloke herritar bat ak-



tibatzea, non saretuko diren parametro linguistikoetan eta akademikoetan egindako ekarpenak. Iraultza terminologiko bat dugu xede eta azken bururaino eramateko konpromisoa eta prestutasuna. Guzti hori kontuan hartuta, ez gaude etsaiaren hitz lauak erabiltzeko prest, hori proposatzen duen militante oro etsaitzat hartuko dugularik. BARROKOA DA BIDE BAKARRA”.

Donostia 2016ren inaugurazioaren kostua hiru segundoan behin igotzen da

Hiriburutza kulturalaren hasierako gauza hura Finnbogasonen gol bat baino askoz garestiagoa dela zabaldu zenetik, ez dago modurik zehatz jakiteko zenbat kostatu zen ikuskizuna. Gaur 660.000 euro, bihar 800.000, etzi batek daki, baina betiere Aizpea Goenagaren soldatatik behera. Bilboko Udaleko iturriek jakinarazi dute irrikan daudela Elkarbizitzaren Zubiaren benetako kostua noiz ezagutuko zain, beraiek euro bat gehiago gastatu ahal izateko zer-baitetan.

ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
| HEZKUNTZA ERALDATZAILEA
EUSKALTZALETASUNA
ELIKADURA BURUJABETZA
INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA
SEXU ASKAPENA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilerro ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzenen artean.



Balio hezitzaileak sustatu nahi ditugu Argian, bide horretan ari den hezkuntza formala eta ez-formala lagun: haurren parte-hartzea eta erabakitze ahalmena aintzat hartzen duen hezkuntza, hezkidetzan, aniztasunean eta elkarbizitzan oinarritua. Komunitatea eta auzolana abiapuntu, denon artean belaunaldi askeak eta autonomoak heztea dugu amets.

MARTXOKO ZOZKETAK



Berdean hezi eta Haurren hiria
(4 liburu)

Txatxilipurdi elkarte
www.txatxilipurdi.com



Hazi Hezi aldizkariaren
harpidetza

Hik Hasi elkarte
www.hikhasi.eus/aldizkariaH.php



Urtxintxaren materiala
(4 material saski)

Urtxintxa Eskola
www.urtxintxaeskola.eus



Perretxiko Zaindariak
(3 jolas)

ARGIA
www.argia.eus/denda

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545
gunea@argia.eus
www.argia.eus/gunea

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com